

# “Bizirako bidea erakutsiko didazu” (Sal 15, 11)

## *Gaur egungo erronkak hezibidean*

IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINEN  
PASTORAL IDAZKIA

### AURKIBIDEA

#### SARRERA (n. 1)

#### I. GAUR EGUNGO HAINBAT HEZKUNTZA-ERRONKA (n. 12)

#### II. JESUS MAISUA<sup>2</sup>: HEZKUNTZAREN EREDUA (n. 20)

II.1. Jesus maisu bezala aitortua (n. 21)

II.2. Jesusen irakaspen harrigarria (n. 30)

II.3. Jesusen entzule eta ikasleak (n. 36)

#### III. HEZKUNTZA ELIZAREN AZKEN ALDIKO IRAKASPENETAN (n. 41)

#### IV. GIZAKIA ETA HEZKUNTZA (n. 44)

IV.1. Gizakia, hezkuntzaren muina (n. 44)

IV.2. Gizatasunez bizitzen irakatsiko duen hezkuntza (n. 46)

#### V. FAMILIA, HEZKUNTZAREN JATORRIZKO EGILE ETA ERAGILE (n. 48)

#### VI. HEZITZAILEA ETA HEZKUNTZA-ELKARTEA (n. 53)

#### VII. HEZKUNTZAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK (n. 56)

#### VIII. ESKOLA ETA UNIBERTSITATE KATOLIKOA (n. 76)

#### IX. ESKOLAZ KANPOKO ETA GIZARTE HEZKUNTZA, INFORMALA ETA AISIALDIKOA (n. 86)

#### X. HEZKUNTZAREN ALDERDI SOZIAL ETA POLITIKOAK (n. 89)

X.1. Hezkuntza, eskubide eta betebeharrak (n. 89)

X.2. Hezkuntza-ituna: egonkortasuna eta blindatzea alderdikerien aurrean (n. 90)

X.3. Errespetu eta babesa gurasoen hautatzeko askatasun eraginkorrari (n. 91)

X.4. Familia asoziazionismoaren sustapena (n. 92)

X.5. Gizarte ekimen askearen sustapena hezkuntza-egitasmoetan (n. 93)

X.6. Hezkuntza erlijiosoaren presentzia irmoa eskolan (n. 94)

X.7. Balorazioa eta esker ona Erlijio-irakasleei (n. 98)

#### BUKAERA (n. 99)



# “Bizirako bidea erakutsiko didazu” (Sal 15, 11)

## *Gaur egungo erronkak hezibidean*

### SARRERA

11. “Bizirako bidea erakutsiko didazu” (sal 15, 11); horra hor salmogileak aukeratzen dituen hitzak gizakiaren *nahi sakona* adierazteko: bere bizitzako ibilbidean, osotasunerako bidean, sarbidea egin beharra, errealitatean sakondu beharra, bere egia ulertuz eta ona eginez bere edertasunaren begiespenak eragindako harriduran.

2. *Hezkuntzaren oinarrizko muina* ez da, berez, metodologiari loturiko auzia, bi askatasun jokoan jartzea baizik: hezigaiarena eta hezitzailearena, pertsonarteko testuinguruan, hezkuntza-elkartearen barruan. *Elkartasunen elkargune* honetan, hezitzaileak eta hezkuntza-elkarte osoak hezigaiari eskaintzen dion akonpainamenduan erdiesten du honek bere heldutasuna. Izan ere, “hezi” aditzaren sustraiak, “educar” gaztelaniazko hitza hartuz gero, latineko bi aditzetan aurkituko ditugu: “duco” -jarraiarazi, eramanarazi-, eta “educere” -sorrarazi, azaleratu-. Hauxe da hezkuntza-eginkizunaren funtsezko sustraia: gutariko bakoitzaren hoberena sorrarazi eta moldatu, hezigaia errealitatearen harriduran murgilarazi, pertsonarteko harremanean, adiskidetasun sortzailearen testuinguruan, pertsona bakoitza den infinitua, dagokion osotasuna antzemateko bidea den errespetuzko maitasunean. Beren-beregi kristaua den hezkuntzan, Espirituaren egintzak hezkuntza-egitekorako gidatu eta gaitu egiten du hezigaia nahiz hezitzailea eta elkarte osoa.

### Garrantzia

3. Hezkuntza, *funtsezko gizarte gaia* da, gertaera, eginkizun nahiz eztabaida bezala. Jakinaren gainean gaude guztiok, hezkuntzak gizakiaren nortasunaren osoko garapenerako eta gizatasun, zuzentasun eta elkartasun gehiagoko gizartearen eraketarako duen garrantziaz.

4. *Elizak egundoko zerbitzua eskaini du gizaldiz gizaldi hezkuntzaren alorrean*, batik bat hainbat gabezia nabarmen ikusten zen lekuetan: pobretasuna eta baztertzea, ahultasuna eta zaugarritasuna, neska-mutiko umezurtzak edo etorkinak dauden lekuetan. Familiari buruzko ohiko sinodoan adierazi zenez: “Eskola katolikoak hil edo biziko laguntasuna eskaintzen die gurasoei seme-alabak hezteko betebeharrean. Hezkuntza katolikoak familiaren zeregina ahalbideratzen du prestaketa ona ziurtatuz, bertute eta balioetan heziz eta Elizaren irakaspenak irakatsiz.” (*Relatio synodi* 2015, 68).

5. *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren* 26. atalean ere adierazten da hezkuntza-lanaren garrantzia. Kapitulu honetan, ondorengo goiburukoak azpimarratzea merezi du: “Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da... Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea... Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.” Hezkuntza, Giza Eskubide guztien paradigma litzatekeen “garapenerako eskubide” bezala uler daiteke. Bereziki aipagarriak dira oinarrizko hezkuntzaren doakotasuna eta derrigortasuna, eta gurasoek beraien seme-alabei emango zaien hezkuntza-mota aukeratzeko duten askatasuna giza eskubidetzat aitortzea. Aldarrikapen honen funtsezko oinarriak Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan jasotzen eta garatzen dira eta, berebiziko garrantzia dutela-eta, ondorengo txatalak nabarmentzea merezi du: “Oinarrizko hezkuntza nahitaezko eta doakoa da” (§4); “Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala

har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe” (§3); “Pertsona fisiko eta juridikoei ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen zaie, konstituzio-printzipioei dagokien begirunearen barruan” (§6); “Botere publikoek laguntza emango diete legezko betekizunak dituzten ikastetxeei” (§9). Bistan denez, bi agiri hauek erreferentzia garrantzitsua dira hezkuntza funtsezko eskubide eta betebeharrak bezala baloratzen baitute.

## **Aukera**

6. Bereziki egokia deritzogu irakaskuntzaren kontuari heltzea, *gaur egun bidegurutzean* aurkitzen garelako balio, kultura eta usadioen transmisioari dagokionez. Era berean, nolabaiteko hezkuntza-irakinaldia bizi dugu: mugimendu berritzaileak sortzen dihardute hezkuntzaren arloan, berrikuntzarako aukera bilakatuz, askoren ustez hezkuntza-ereduak zaharkiturik daudelako. Hor da gizarte eztabaida amaigabea ere, oinarrizko akordioetara iristea ezinbestekoa deneko kontzientziarekin. Bada gizarte zibilerako adostasuna eragingo duen hezkuntza-hitzarmena nahitaezkoa dela dioen ahots zilegiturik ere.

7. *Familiek laguntasuna behar dute* beste hainbat eragilek, bereziki haur eta gazteengan, egundoko eragina duten gizarte egoeran: kultura-eredu anitz transmititzen da hedabideen bitartez, bereziki sozializazio digitalerako bide berrien bidez. Gaur egun, gurasoek beraien seme-alabak, beraien uste osoen arabera hezteko duten eskubidea eta betebeharra egokitasunez ez babesteko arriskua dago. Halaber, eremu jakin batzuetan, zalantza jartzen da pertsona juridikoei ikastetxeak sortzeko duten eskubidea eta betebeharra.

8. Azken batean, gure iritziz une egokia dugu hau, hezkuntzaren eremuan *ekarpen esanguratsu eta begirunetsua* egiteko, goian aipaturiko oinarriak kontuan hartuz egindako proposamen zehatzekin. Jabetzen gara beti ere komenigarria dela hezkuntzaz hitz egitea eta ezinbestekoa deritzogu familia guztiekin, hezitzaileekin, hezkuntza-elkartarekin, dagokien erakundeekin eta gizarte osoarekiko hartu-eman eta elkarriketan egiteari.

## **Helburuak**

9. Pastoral idazki honen bitartez, *hausnarketa eta ekarpen zehatzak eskaini nahi ditugu* gai garrantzitsu honen inguruan, ezinbesteko eztabaida publikoan baterako eremu publikora jotzeko. Aldi berean, Elizaren ekarpen leial eta eraikitzailea eskaini nahi diogu hezkuntza-egitekoari.

10. Halaber, beharrezkoa da *hezkuntzaren eta Elizaren egiteko ebanjelizatzailearen arteko lotura aurkeztea* eta garatzea, familien, ikastetxeen eta eliz elkarte eta erakundeen artean sinergiak sortuz.

## **Hartzaileak**

11. Orokorrean, *herritar guztiei* eskaini nahi diegu gure hausnarketa; *zer esanik ez, familiei eta baita hezitzaileei ere* -adiera zabalean harturik, hau da, maisuei, irakasleei, begiraleei, katekistei...-. Halaber, inguru bakoitzean familiei hezkuntza-esperientziarako bidea eskaintzen dion eragile zehatzat hartutako *hezkuntza-elkartearen* zerbitzura jartzen dugu. Bereziki, hezkuntza-erakunde katolikoei, parrokiei, kongregazio erlijiosoei, komunitateei, mugimendu eta elkartei ere zuzentzen gaitzaizkie, guztiek esku-hartzen dute-eta hezkuntza-egitekoan. Ezin dugu ahaztu heztea familiaren eginkizuna dela eta, erantzukide bezala, eskolarena, pertsona bakoitzarena bere hezitzaile eta hezigai eginkizunean bizitzako aldi desberdinetan. Eta Elizaren eginkizuna ere bada, gizarte, politika eta ekonomia arloko bizitza gobernatzeko, administratzen eta antolatzen dutenena, komunikabideena, aisialdian aritzen diren erakundeena, gizarte osoarena. Guzti horiei ere aurkeztu nahi dizkiegu, errespetu osoz, idazki honetan jasotako hausnarketak.

## I. GAUR EGUNGO HAINBAT HEZKUNTZA-ERRONKA

**12.** Heztea inoiz ez dela erraza izan esan daiteke, eta gaur egun, gero eta zailagoa dirudiela. Horretaz jabetuta daude arlo horretan dihardutenek. Administrazio publikoekiko eta hezkuntza arloko instantzia guztiekiko errespetuzko hartu-emanaren aldeko apustua egin nahi dugu, hezkuntzan bikaintasuna eta zuzentasuna lortzeko egiten duten ahalegina eskertzeaz batera. Hala ere, *“hezkuntzaren larrialdi-egoera”* aipatzen da, gizon-emakumeak hezteko eta belaunaldi berriei gure kultura balioak transmititzeko ahaleginetan jasotzen ditugun porrotek berresten dutenez. Uko egitearen tentazioa gainditu eta ezinbestekoa da *konfiantzaz eta itxaropenez beteriko mezua* hedatzea, giza askatasunaren adierazpen baizik ez den erronkari aurre egin ahal izateko. Elizak beti lagundu izan du giza eta kristau esperientzia zehatza bizi duten benetako hezkuntza eta pastoral elkarten sorrera, eta hezkuntza pertsonalizatu eta komunitarioa eskaintzen du.

**13.** *Benetako hezkuntza eskatzen duen garaian* bizi gara; maitasunaren oinarrizko esperientzian oinarritutako hezkuntza; bizitzaren egia sakon eta erradikalaren bilaketan oinarritutako hezkuntza, bizitzan frustrazioari eta sufrimenduari aurre egiteko esperientzia nahiz askatasunaren eta diziplinaren arteko oreka egokia lortzea ezinbesteko bihurtzen delarik. Bere eginkizuna garatzeko, hezitzaileak bere buruaren lekukotasuna du lehenik eta behin; maitekiro eskaintzen die ikasleei lekukotasun hori, beraien aurrean bere ahalmen morala gauzatu. Erantzukizunaren hil edo biziko garrantzia nabarmendu baizik ez du egiten guzti horrek: hezitzen dutenen erantzukizuna beraien eginkizunaren garapenean, eta prozesuan jadesten duten heinean, ikasleen beraien buruarekiko eta besteekiko erantzukizuna. Azken batean, bakoitzaren erantzukizunaren berebiziko garrantzia nabarmendu baizik ez du egiten: hezitzen dutenena, beraien egitekoaren gauzatzean, eta hezi-gaiena, prozesuan bertan jadesten duten heinean, beraien eta besteen aurrean. Elkarte nahiz gizarte mailan denok lotzen gaituen erantzukizuna eta denoi dagokiguna, baita kristauoi ere, besteak beste, probaren erdian eusten gaituen eta gaur egun hezkuntzaren erreferentzia nagusi bihur daitekeen Jainkoarenganako itxaropenean zehazten den geure espezifikotasunetik dagokiguna.

**14.** *Nahitaezkoa a, edukitzearen eta itxurakeriak egitearen tentazioaren aurrean, egia eta izakiaren beraren ona aditzera emango duen kultura*, gizaki orori dagokion duintasun besterenezina aldarrikatuko duen kultura sustatzea. Gizakia bideratu beharra dago bere buruaren ona eta guztien ona lor dezan, pertsonari eta giza familiari buruzko egia desitxuratzen duten ideologien, edo sormenari eta idiosinkrasiari leku gutxi uzten dion nolabaiteko kultura homogeneizazioaren aurrean. Egian eta onean sustraitutako askatasunaren garapenak pentsamendu bakarraren inguruan ohartarazten gaitu eta erlatibismoa gainditzen laguntzen digu. Pentsamendu kritikoaren garapenak eta bizitzari errealismo, baikortasun, itxaropen eta konpromisoz aurre egiteko gaitasunak, konpromiso egonkorrik hartzeari uko egitera garamatzaten axolagabekeriako jarreretan, jarrera konformista, taldekoi, emotibo eta azalekoetan ez jausteko ahalmena ematen digute.

**15.** *Beharrezkoa da gizarte hartu-emanen eta benetako komunikazioan heztea*, ezinbestekoa baita bakarrik kontsumotik, ikuskizunetik, iritzitik bizi den eta, ondorioz, egiazko eta egiazaturiko informazioa lortu eta eskaini ordez, manipulazioan erraz erori daitekeen gizartearen arriskua gainditzea. “Egiando” deituriko garaian, hau da gizon-emakumeak, egia eta gauzen errealtatea ezagutzeko duten berezko gaitasunari uko egin, eta ez egirik ez berau bilatu eta aurkitzeko giza arrazoiaren benetako gaitasunik ez deneko uste sendora iristen diren garaian, benetako hezkuntzak, gizakiak egia ezagutzeko duen gaitasunean sinesten du eta gaitasuna ematen dio errealtatea ulertzeko, errealtatean barneratzeko eta bere bihotzean grabaturiko egia-grina asetzeko. Hain zuzen ere, egia-gurari bezala defini daiteke arrazoa, ezinbesteko osagaia bizitza eta gizarte benetan giza-tiarrak garatzeko.

**16.** Hezkuntza-egitekoak gure bizitzari osotasuna ematen dion maitasunerako bokazioan txertaturiko gizakiaren *alderdi afektibo eta sexuduna* ere barne hartzen du. Erotismoaren eta pornografiaren ugaritzea, sexualitatearen ezereztea dela-eta, eta, hauekin batera, etxeetan, makina bat emakume eta adin txikikorengan egundoko sufrimendua sortzen duten eta hainbestetan horien hilketa zoritzarreko eta gaitzesgarria dakarten errespeturik

eza, jarrera matxistak eta indarkeria gero eta hedatuago daudela-eta, duintasun, errespetu, afektu, maitasun eta erantzukizunean oinarritutako benetako hezkuntza afektibo-sexuala bereziki beharrezkoa da gaurko testuinguruan.

**17.** Frantzisko Aita Santuaren Irakaspenarekin bat, beharrezkotzat jotzen dugu “diruaren nagusitasuna deuseztatzeko gauza den eta berriz ere gizakia erdigunean jarriko duen aldaketaren garapen-prozesua” bultzatzea (Frantzisko Aita Santua, *Herri Mugimenduei eskainitako hitzaldia*, 2016). *Jarduera ororen erdian gizakia ipintzea* eskatzen du honek. Era berean, guztien onaren kultura proposatzea, indibidualismo egoistaren, ekonomia insolidarioaren eta baztertzearen kulturaren aurrean; gizatasuna kentzea dakarren teknologizazio itsuaren arriskua gainditzeko saiatzea; gizarte, ekonomia eta lan arazorik larrienei heltzeko hezkuntza-egitasmoak zehaztea, gizon-emakumea delarik beti garrantzitsuena eta lehenetsi behar dena.

**18.** *Erantzukizun ekologikoa* da hezkuntzaren arloan sustatu behar den beste alderdietako bat, kontsumismo zentzugabea, lehengaien harraparitza, arduragabekeria, baliabide naturalen gehiegizko esplotazioa eta antzeko beste hainbeste jarrera gainditzeko. Ezin dugu ahaztu izadia Jainkoaren egundoko dohaina dela eta guri zaintzea eta sustatzea dagokigula.

**19.** Ezinbestekoa da gizakiaren *alderdi transzendentea* egokitasunez zaintzea eta garatzea. Gizakiak bihotzean grabaturik duen Jainkoarekiko hartu-emanak, Jainkoa ezagutzeak eta maitatzeak zentzuz betetzen du bizitza eta giza senidetasuna eta gizarte eta mundu zuzen eta solidarioagoaren garapena oinarritzen du. Axolagabetasun erlijiosoaren eraginez, baliteke erlijio-prestakuntza egoki ez baloratzea eta baliteke, baita ere, erlijio-irakasgaia, askatasunez nor bere eginik, hezkuntza egitekoaren kontrako elementua ez ezik, ondasuna eta benetan osoa den hezkuntzaren atala dela ez ulertzea. Espiritualtasuna lantzeko bide berrien ugaltzea bizi dugu. Yogaren, zenaren edo ekialdeko meditazioaren aldaera batzuk eta kristau meditazioaren eta ekialdeko tekniken bateratzerako beste hainbat proposamen berdintsu “behin eta berriz bahetu beharko genituzke, eduki eta metodoak arretaz bereiztuz, sinkretismo kaltegarrian erortzea saihestu ahal izateko”<sup>1</sup>. Reikia, xamanismoa, Tarot eta Igarletza edo Aro Berria -eta antzekoak-, ez dira bateragarriak benetako kristau espiritualtasunarekin eta, horregatik, behar-beharrezkoa da honako errealitate hauek egiazko kristau esperientziatik argi eta garbi bereiztea. Bizi garen gizarte anitz eta sekularizatu honetan, eta sinesten dugun pertsonaren kristau ikuspegitik, gizakiaren misterioa Jainkoaren misteriotik bideratzen dela eta Nazaretoko Jesusen gertaerak argi egiten diola uste dugu. Misterio honek eta gertaera honek argitzen dute pertsona kontziente, aditu, erukitsu eta konprometituak hezteko lana.

## II. JESUS MAISUA<sup>2</sup>: HEZKUNTZAREN EREDUA

**20.** Gazteen, fedearen eta bokazio bereizketaren inguruan ospatuko den sinodoa prestatzeko agirian esaten denaren arabera, “hainbat ikerlanetan jasotzen denez, gazteek erreferentzia gertuko, sinesgarri koherente eta zintzoak behar dituzte eta baita besteekiko (heldu nahiz adinkide) harremanerako gaitasuna probatzeko eta dinamika afektibo aurre egiteko leku eta aukerak ere. Epaitu ez ezik, sintonia adierazteko eta babesa, pizgarria eta mugak ikusteko laguntasuna eskaintzeko gauza diren pertsonak bilatzen dituzte» (*Gazteak, fedea eta bokazio bereizketaren inguruko ohiko XV. Sinodoa prestatzeko agiria, 1,2*). *Nazaretoko Jesus benetako eredia da hezitzaile eta maisu bezala*. San Agustinek zioen: “Gure benetako maisua entzuten dugun hura da, gizakiaren barruan bizi dela diotena, hau da, Kristo, Jainkoaren ahalmen aldaezin eta betierako jakituria” (Agustin, *De magistro*, XI, 38).

<sup>1</sup> Ik. FEDEAREN DOKTRINARAKO KONGREGAZIOA, *Gutuna Eliza katolikoko gotzainei kristau meditazioaren alderdi batzuei buruz*, 1989, 12. zenb.

<sup>2</sup> Ik. KLERORAKO KONGREGAZIOA, *Katekesirako Direktorio Nagusia*, 1997: Kristoren pedagogia. 140. zenb. “Jesussek bere bizitza labur bezain bizian erabili zituen hitz, zeinu eta egintzen bitartez, ikasleek “Jesusen pedagogiaren” oinarritzko ezaugarrien esperientzia zuzena izan zuten, gero ebanjelioetan idatziz jarritz: bestearen harrera, bereziki behartsuaren, txikiaren, Jainkoak maitatzen eta bilatzen duen bekatariaren harrera; Jainkoaren Erreinuaren egiazko iragarpena, Aitaren egia eta errukiaren berri on bezala aurkeztuz; gaitzetik askatzen eta bizi sustatzen duen maitasun samur eta sendoa; Jainkoarengan sinestea, Erreinuaren itxaropena izatea eta hurkoaren aldeko maitasuna euskarritzat dituen bizimoduari ekiteko dei bizi; pertsonarteko komunikazioaren berariazko baliabide guztien erabilera, hala nola, hitza, isiltasuna, metafora, irudia, adibidea eta beste hainbat zeinu, profeta biblikoen artean ohikoa zenez”.

## II.1. Jesus maisu bezala aitortua

**21.** Maisu esaten diote *talde sozial eta erlijioso guztietakoek*, ez bere adiskide eta ikasleek bakarrik, baizik eta idazlariek, farisearrek eta aurka egiten diotenen ere<sup>3</sup>. Ebanjelioetan gehien agertzen den titulua da. ‘Maisu’ («rabbi», hebreerazko hitzak «nire nagusia» adierazten du), ohorezko eta begirunezko titulua da. Horrela deitzen dute eta berak ere maisu izena ematen dio bere buruari. Ebanjelioetan, maiz kontatzen da Jesusen irakasle-jarduera, hain zuzen ere, jarduera ibiltaria, Galilean ez ezik, Judean eta Samaria eta Transjordanian aritzen delako.

### *Ezohiko maisua*

**22.** Jesus *maisua karismatikoa* zen, errabino izateko prestatu ez bazen ere. Bere ikaskuntza honetan oinarritzen zen: bere etxeko esperientzian, sinagogako eskolan, bizi-esperientzia informalean (izadia, lana eta gizartea), goitik datorren jakiturian. Jesus, halaber, tradizioari loturik den maisua da; tradizio hori ondo ezagutzen du, maiz aipatzen eta sakon errespetatzen, absolutu bihurtu gabe. Maisu profetikoa da, ohiko jakituriaren kritikoa; bizimodu jakin bat, gizabanakoaren eta gizartearen eraldaketarako “bidea” irakasten duen maisua.

### *Irakasteko era*<sup>4</sup>

**23.** Jesusek, berak ere jaso egin zuen jakituria tradizionala hedatzeko ohikoak ziren erak erabili zituen. Hona hemen *gehien erabiltzen zituen irakasbideetako batzuk*: esaera zaharrak<sup>5</sup>, parabolak<sup>6</sup>, jarduera sinbolikoak<sup>7</sup>, gauzen eta gertaeren ikasbideak<sup>8</sup>, baliabide erretorikoak<sup>9</sup>, umorea<sup>10</sup>, arrazoibide logikoa<sup>11</sup>. Baina, batez ere, egia maite izanez erakusten du Jesusek bere askatasuna. Metodo pedagogiko ororen ginetik, azpimarragarria da zer nolako askatasunez erakutsi zuen agertzera ematera zihoan egiarekiko konpromisoa. Horretarako, ez du inongo beldurrik nagusi den pentsamendua ezeztatzeko, giza logika gainditu eta Jainkoaren ezagutzan (Mt 16, 22-23) murgiltzea nahitaezkoa dela azpimarratuz.

### *Irakasbideak*<sup>12</sup>

**24.** *Jesusek etsenpluaren bidez irakasten du.* Erabateko koherentzia dago irakasten eta egiten duenaren artean. Predikatzen duena egin egiten du. Horregatik esan dezake: “Ikasi niregandik” (Mt 11, 29). Bere solaskideen bizi-esperientziara hurbiltzen da: herritarrek bizitzan dituzten beharrez arduratzen da, hizkuntza ulergarria darabil eta jarrera hurbil eta abegitsua erakusten die. Jesusek hainbat elkarrizketari ekiten dio, galderak eginez eta erantzunak eskainiz. Galderak, erantzunak bezain hezigarriak izan daitezkeela esaten da.

<sup>3</sup> Esate baterako, Lukasen liburuan: 3, 12; 7, 40; 9, 38; 10, 25; 11, 45; 12, 13; 18, 18; 19, 39; 20, 21; 20, 28; 20, 39; 21, 7.

<sup>4</sup> B. GRENIERREN *Jesus el maestro* (San Pablo, 1996) eta PH. PERKINSEN *Jesus como maestro* (El Almendro, 2001) liburuen ekarpenei jarraituz.

<sup>5</sup> Esaera labur eta zehatzak dira jakituria gauzatzeko. Jesus horiez baliatzen da, batzuetan originaltasunez (Esate baterako: Jn 3, 8; 4, 35; 4, 37; 4, 43-44; 11, 9-10). Hitzez hitz Ebanjelioetan jaso ziren Jesusen epigramak ere aipa ditzakegu hemen (esate baterako, Mt 16, 25-26; 23, 11-12).

<sup>6</sup> Jesusek gustuko zituen konparazioak, narrazio-tradizioaren bitartekoak eta, horregatik, parabolaren bidez hitz egiten zuen. Antzinako parabolak erabiltzen zituen, baina beti ere amaiera harrigarria emanez, jatorrizko ordena azpikoz gora jarriz. Jesusen predikatuaren eduki dira nolabait, mezuaren aldarrikapen zuzena. Asko eta asko, gaur egun ere, orduan bezain probokatzaileak dira (Lk 10, 30-37; Lk 15, 11-32; Mt 20, 1-13).

<sup>7</sup> Askotan, ekintzak, hitzak baino ozenago mintzatzen dira. Joanen liburuan, Jesusen mirariei, hain zuzen ere, Jesus nor den adierazten duten «zeinu» deitzen zaie (esate baterako, Jn 11, 1-44). Beste batzuetan, balio eta esanahi aparta duten jarduerak dira (Jn 13, 1-17).

<sup>8</sup> Jesusek maiz erabiltzen ditu unean uneko bitartekoak, entzuleei irakasteko aurkezten zaizkion aukerak (esate baterako, Mt 22, 15-22 edo Mk 12, 43-44).

<sup>9</sup> Hizkuntzaren bitarteko-sorta handi eta anitza darabil: hiperbole eta esajerazioak (Mt 5, 29-30); paradoxak (Mt 5, 3-16); ironiak (Mk 2, 17); konparazioak (Mt 10, 16) eta alegoriak (Lk 13, 18-19).

<sup>10</sup> Noiz edo noiz, umorea ere erabiltzen du, bere mezuaren gogortasun eta seriotasunak eragindako tentsioa lasaitzeko (Mt 7, 3-5; 23, 24).

<sup>11</sup> Arrazoiketara bidezko eztabaida maisutasunez menperatzen du hainbat une eta eratan: dilema logikoa (Mt 22, 23-33 edo Jn 8, 1-11); absurdora eramatea (Mk 3, 23-26); ‘a fortiori’ argudioa (Lk 13, 15-16).

<sup>12</sup> Id.

Maisu onen ezaugarri bereizgarria da galdera egokiak egitea. Jesusek egindako ehun galderatik gora jasotzen da bakarrik Joanen Ebanjelioan. Jesusen erantzunak bere galerak bezain desafiatzaileak dira, eta, azkenean aurkariek, unerren batean, galdetzeari ere uko egiten diote (Lk 20, 40).

**25. *Jesus Idazteunez baliatzen zen eta hezitzen zituen haien alde otoitz egiten zuen.*** Jesusek etengabe jotzen du Idazteunetara bere irakaspenean. Aztertu, hausnartu, otoitzu egiten ditu, bere mezuetan erabiltzen ditu eta gauzatzen saiatzen da, era berri eta eskandalagarrian bada ere. Hezitzen dituen haien alde otoitz egiten du. Behin eta berriro agertzen da hau ebanjelioetan eta kristau pedagogiaren atal izan behar du. Batzuek honela formulatu dute: “Gizakiei Jainkoaz hitz egin aurretik, ezinbestekoa da Jainkoari gizakiez hitz egitea”. Ohikoa zuen Jesusek jarduera hori, hau da edo bere solasaldietan otoitza naturaltasunez tartekatzen zuen (Mt 11, 25; Jn 11, 41-42) edo, une erabakigarrietan, aparteko lekuren batera joaten zen ikasleen alde otoitz egitera (Lk 6, 12).

### ***Jesusen eskola***

**26. *Jesusen eskola, lur zabalean garatzen zen, bide eta plazetan, osoko eskola Erreinurako, beti zabalik, haur eta helduentzat, aberats eta behartsuentzat, gaixo eta osasuntsuentzat, garbi eta lohientzat...*** Jesus ez da norbait etorriko zain geratzen, askok eta askok ez du-eta ez arroparik ezta osasunik ere Berarengana joateko. Jesus “joan” egiten da eta bere eskola jartzen du haien artean. “Doan hartu duzue, eman doan” (Mt 10, 8). Zer nolako dohaina jaso duen jabetzen denak bakarrik daki bere egiten eta bere bizitzan ugaltzen. Aitak digun baldintzarik gabeko maitasuna agertzeraz ematen digu Jesusek, adibidez Aita Errukitsuaren eta bi semeen parabolan (ik. Lk, 15), gaitzik handiena, bekatu guztien sustraia, Aitaren doako maitasunari egoki ez erantzutean datzala kontura gaitezen.

**27. *Jainkoaren Erreinu doakoa da, errukia da, eta aldi berean bihotz-berritzea eskatzen du.*** Graziak ez gaitu emate eskuzabaletik salbuesten; alderantziz, emate horretarako gaitasuna ematen digu. Ebanjelioa argigarria da horren inguruan. Esate baterako, bidegurutzetan dauden guztiak Erreinu banketera gonbidatu izanak ez du ziurtatzen denen parte-hartzea, horretarako nahitaezkoa delako gonbidapena jaso duten guztien prestasun egokia (ik. Mt 22, 1-14).

**28. *Barrutik kanpora, ez kanpotik barrura.*** Hain zuzen ere, Jesusen hezkuntza-egitekoa estu loturik dago bihotz-berritzeko bere deiari. Eta bihotz-berritzea, bihotzaren aldaketatik hasten da eta, ondoren, pixkanaka, gure jarrera, afektu eta jardueretan islatzen da. Jesusen pedagogia, “zentripetua” baino gehiago “zentrifugoa” dela esan dezakegu. “Jesusek bihotz-berritzeko eta penitentziarako egiten duen deiak ez ditu behatzen, lehenik eta behin, kanpoko egintzak, “zaku eta errautsa”, barau eta mortifikazioak, bihotz-berritzea, barruko penitentzia baizik. Hori gabe, penitentziatzko egintzak antzu eta faltsuak dira; alderantziz, barruko bihotz-berritzeak jarrera honen adierazpena bultzatzen du ageriko zeinu, keinu eta penitentziatzko egintzen bidez” (CIC 1430).

**29. *Txiki eta behartsuek ebanjelizatu egiten gaituzte.*** Jesusek, txikiak eta zaurituak erdian ipini eta beraien-gandik ikasteko eskatu zigun, iraultza pedagogikoa burutuz. Jesusek haur txiki bat erdian ipini (ik. Lk 9, 46-48) eta Jainkoaren Erreinu sartzeko txiki bihurtu behar dugula adierazi zuenean, ahulak oso maite zituela adierazi zuen eta, horrezaz gainera, makaltasuna jainko pedagogian, apaltasunaren eta txikiaren logikan txertatu zuen. Gauza bera esan daiteke Jesus bekatarari eta behartsuengana hurbiltzen denean (ik. Lk 5, 31-32).

## **II.2. Jesusen irakaspen harrigarria**

**30. *Jainkoaren Erreinuaren ezarpenean eta, batez ere, haren “dagoeneko bai” eta “oraindik ez” tentsioan bildutako Jesusen mezuaren iragarpenak inguruko guztiarekiko hartu-eman egokiak eskatzen dizkie jarraitzaileei.*** Horregatik, Jesusen irakaspen korapilatsu eta zabala, hiru gai-multzoren inguruan antola daiteke: gauzekiko hartu-emana, besteekiko hartu-emana eta Jainkoarekiko hartu-emana<sup>13</sup>.

<sup>13</sup> B. GRENIERREK *Jesus el maestro* liburuan (San Pablo, 1996) egiten dituen ekarpenei jarraituz.



### **Gauzekiko hartu-eman**

**31.** Jesusek Erreinuaz duen ikuspuntuan, zeresan handia dute *mundu materialarekiko hartu-eman egokiek*. Hau guztiz esanguratsua da diruzalekeriaz, materialismoaz, kontsumismoaz, harraparitza ekologikoaz eta ondasunen bidegabeko banaketaz bustitako gaur egungo garaian. Mundu materialak eta beronekin izan ditza-kegun harreman maltzurrek delako mundu hori mirestera eta berez ez den absolututzat hartzera eraman gaitzakete, Erreinuaren onarpena eragotziz. Horregatik dio Jesusek Erreinua behartsuena dela (ik. Lk 6, 20) eta aberatsek nekez aitortu eta bizi izango dutela (ik. Mt 19, 24). Nabarmendu beharra dago azken hau ez dela ez mehatxua ezta zigorra ere, aienea baizik (ik. Mt 19, 16-22).

**32.** *Aberastasunak gortasuna eragin dezake*. Ardura osoa ondasun materialetan jarriz gero, baliteke Jainkoaren ahotsa ez entzutea edo gure bihotza gogortzea eta entzungor egitea (ik. Mt 13, 22). *Aberastasunak itsutasuna eragin dezake*. Aberastasunak lortzeko grinak bestearen beharra ez ikustera eraman dezake (ik. 1Jn 3, 1), benetan behartsuak lor badezake ere gu Erreinuara bihurtzeko miraria (ik. Lk 16, 19-31). *Aberastasunak idolatria eragin dezake*. Jesusentzat ez dago erdibiderik kontu hauetan (ik. Mt 6, 24). Ondasun materialak neurritz kanpo desiratzen dituenak, azkenean, sasi-jainko bihurtzen ditu (ik. Ef 5, 5).

**33.** Arrisku guzti hauen aurrean, *Jesusek Jainkoaren Erreinuaren balioak eskaintzen ditu*. Lehenik eta behin, pobretasuna ez idealizatu ezta ideologizatu ere: soiltasunak maitasunaren emaitza izan behar du eta ez boluntarismo edo fariseismoarena (ik. 1 Kor 13, 3). Bigarrenik, elkarbanatu eta ez pilatu: ondasunak pilatzea burugabekeria da (ik. Lk 12, 16-21) eta elkarbanatzea, guztiontzako bizimodu alai eta duinaren sekretua (ik. Mt 14, 13-21). Hirugarrenik, Jainkoaren arduran konfiantza izan: jakina, lan egin behar dugu bizibidea ateratzeko, baina gure lana Jainkoaren jarduera sortzaileari jarraipena emateko eta jarduera horretan elkar-lanean aritzeko bidetzat hartu beharko genuke (ik. Mt 6, 25-34).

### **Besteekiko hartu-eman. Hurkoa**

**34.** *Oinarrizko jarrerak, maitasunarenak* (ik. Jn 13, 34-35) zeharkatzen du Jesusek besteekin hartu-emanen bizitzeko egiten digun proposamenak; baldintzarik gabeko maitasun unibertsala da hori, etsaienganaino ere iristen dena (ik. Mt 5, 43-47). Honela, bestea neure lagun-hurko bihurtzen da. Hainbat bide dago maitasun hau zehazteko, baina, une honetan, hauek nabarmendu daitezke: gupida<sup>14</sup>, errukia<sup>15</sup>, barkamena<sup>16</sup>, zerbitzua<sup>17</sup> eta bertuteen garapena<sup>18</sup>. Jesusekiko bategiteak hezigaiaren eta hezitzailearen bihotza indarberritu egiten du. Jesusekin, posible da barkamena eta adiskidetzera, hezkuntza eta giza eta kristau bizitza orotan funtsezkoak diren alderdiok gauzatzea.

### **Jainkoarekiko hartu-eman**

**35.** *Hartu-eman bizi eta etengabeaz zuzentzen zaio Jesus Aitari* (170 aldi ingurutan lau ebanjelioetan, eta San Joanen liburuan bakarrik 100 aldi baino gehiagotan), berezitasun batekin: Abba (aitatxo) aramear hitza

<sup>14</sup> Gizon eta emakumeek, guzti-guztiek, jatorri, baldintza edo gainerako inguruabarregatik bereizketarik egin gabe (ik. Mk 1, 41; Mt 20, 34; Lk 7, 13) jasaten duten behartasun, gabezia, bazterketazko egoerak behin eta berriz eta sakon hunkitzen du (barru-barruan zirrara eragiten dio) Jesus (ik. Mk 6, 34). Batzuetan, besteekiko konpromiso horrek Jesusen negarra eragiten du (Lk 19, 41-42; Jn 11, 35). Bereziki, bekatuak eraginik, Jainkoaren ondotik aldendu den gizakiaren egoerarengatik sufritzen (ik. Mt 23, 37).

<sup>15</sup> Errukia da Jainkoaren ezaugarri bereizgarrietako bat eta Berarengandik jaso dugun errukia besteei helaraztea izan behar dugu helburu (Lk 6, 36).

<sup>16</sup> Bekatuak barkatu dizkieten eta, horregatik, aldi berean, bekatuak barkatzen dituzten bekatariak bizi dira Jainkoaren erreinuan (ik. Mt 6, 12). Jainkoaren maitasuna giza maitasunean agertzera ematen da eta bere barkamena, gure barkamenean. Horixe egiten du Jesusek, horregatik jazarpena jasateko arriskua zuela jakinik ere (ik. Mt 5, 21). Jesusen portaera, probokatzaila da, ohikoa duelako bekatariarekin bizikide izatea (ik. Mt 11, 19; Lk 19, 1-10). Jesusen barkamena baldintzarik gabekoa da (ik. Mt 18, 21-22); aldi berean, guk bihotz apal eta damutua izan behar dugu, askatasun osoz Jainkoaren barkamena onartzeko prest den bihotza (ik. Eg 3, 19).

<sup>17</sup> Zerbitzua, paradoxikoki, Jesusen eta bere ikasle izan nahi dutenen nagusitasunaren jarrera bereizgarria da (ik. Jn 13, 4-15; Mt 20, 25-28). Lehentasuneko erlazioak Jainkoaren Erreinuaz ez du inongo zerikusirik munduko irizpideekin (ik. Mt 18, 3-4).

<sup>18</sup> Hainbat bertute ikus daitezke Jesusen bizitzan, guztiak ere, benetako eredu bere ikasleentzat: apaltasuna, eroapena, iraunkortasuna, sendotasuna, neurritasuna... Hezkuntza eta fede elkarteak erakargarria izango bada, Nazaretoko Jesusen jarrera eta bertuteez moldatu beharko du bere burua.

darabilela. Jainkoari Abba-Aita esatean, Jesusek, alde batetik, Hartaz duen ezagutza berezia, gizon eginiko Seme Bakarra izateak dakarkion ezagutza zehazten du eta, bestetik, guk Harekin zer nolako hartu-emanan izan dezakegun agertzeraren ematen digu. Halaber, Jesusek bere hitz eta egintzetan Aita ezagutzera ematen digu (ik. Jn 17, 26), Berarekin duen harreman berezi eta bakarra agertuz (ik. Jn 8, 19; 12, 44; 14, 19). *Jainkoaren behin betiko agerkundea Jesus bera da* (ik. Mt 11, 27): Pertsona bakoitzaren alderdi barne-barnekoan aurkezten den Jainkoa da (ik. Jn 14, 23; Jn 17, 20-23), maitasuna den Jainkoa (ik. 1 Jn 4, 16), Jainko gupidatsu eta errukitsua, Jainko arduratsu eta leiala (ik. Mt 7, 7-11; 5, 45; 6, 11). Jesusek Aitaren jardueraren hezitzailea, bere goi-arduraz aurretikoa den, bere presentziaz lagun egiten duen eta bere bizia emanez salbatu egiten duen maitasuna, aditzera eman eta pertsonalizatu egiten du.

### II.3. Jesusen entzule eta ikasleak

#### *Jesus, profeta karismatikoa*

**36.** Jesus *ezin du* Israelen hedaturik zen maisutza/ikaslego sistema tradizionalaren barruan kokatu. Ez dira ikasleak maisua aukeratzen dutenak, alderantziz baizik, bitxia badirudi ere, maisuak aukeratzen dituelako bere ikasleak (ik. Jn 15, 16). Horregatik da hain harrigarria bere kasua (ik. Jn 7, 15). Jesusen erantzunak aditurik nagusienarengana, Jainkoarengana berarengana igortzen gaitu (ik. Jn 7, 16-17). Lehen ikasleek antzeko salaketei aurre egin behar diete (gatazka argi eta garbi agertzen da itsuaren istorioan: Jn 9, 13-34). Jesus maisu karismatikoa da; Jainkoak deitu du, misio edo eginkizun jakin bat gara dezan. Ebanjelio sinoptikoetan (Mateo, Markos eta Lukasena), Jesusen bokazioa kontatzean, bere aitzindari bezala aurkezten den Joan Bataiatzailea profeta karismatikoa atxikita agertzen da, baina ondo bereiziz (ik. Mt 3, 14-15).

#### *Bere jarraitzaileen erantzuna*

**37.** Ez da ahaztu behar, Jesusen mezuak entzuleen aldetik izan zuen harrera deskribatu aurretik, kontrako erantzuna esanguratsua izan zela. Bultzatu zuen lege zaharraren erreformak, bere kritikak garaiko buruzagitzaren erlijiosoari, ekintza sinboliko eta esanguratsuek -esate baterako mirariak-, *makina baten aurkakotasuna jaso zuten*, nahiz eta guzti horren zirrara eta eragina aitortu beharrean izan (ik. Lk 23, 5). Jesusen proposamena onartzen dutenen artean, bi talde bereizten dira. Alde batetik, gehienek *haren doktrina eguneroko bizitzako egoerarako zela* eta, ohiko bizimodua eramanez, Jainkoarekiko harreman berria izaten saiatu behar zutela uste zuten, horrek beraien bizitzara aldaketak eta hobekuntzak ekarriko lituzkeelako.

**38.** Hala ere, Jesusek *jarraipen erradikalagoa egitera gonbidatzen dituen ikasleen taldea* biltzen du bere inguruan (ik. Lk 5, 1-11). Erabateko aldaketa honek esanahi berezia zuen hain mugikortasun gutxiko gizarte hartan eta, ondorioz, harridura eta nahasketa eragiten ditu, baita familian ere. Erotasun-salaketa (ik. Mk 3, 20-25) ez da funtsik gabea. Jesusen auzotarrak dira eszeptikoenak (ik. Mk 6, 1-6). Jesusek ekin eta ekin dihardu deiaren erradikalatasunaz (ik. Mt 8, 18-22). Ez da zuzena Jainkoarengandik datorren bokazioa familiako hartu-emanen eta gizarte baldintzatzaileen atzetik edo haien menpe jartzea; erabateko lehentasuna du.

#### *Mezua denentzat da*

**39.** Ohikoa zenaren aurka, Jesus ez da bana-banako jendearen (ikasia, gizona...) maisua, eta *bere mezua jendetzarentzat da*. Bere heriotzak, hain zuzen ere, agintariak herriarengana izan dezakeen eraginari dioten bel-durrarekin zerikusia du. Ebanjelioetan hamaika salaketa agertzen da Jesusen aurka, “publikano eta bekatariekin” duen harremanagatik (ik. Lk 5, 30; 7, 34). Esamolde horrek gizarteko mesprezatu guztiak barne hartzen ditu: judu bekatariak (batzuetan, gaixoak barne), jentilak, lapurrak, gaizkileak, adulteriogileak, prostitutak, estortsioa egiten dutenak, iruzurgileak... eta orduko gizarte juduan garrantzi gutxiak ziren emakume eta haurrak. Jesusi berari ere bizizalea izatea aurpegiatzen diote. Ebanjelioetan maiz agertzen da bi talderen arteko bereizketa: “jende-taldea” edo “jendetza” eta, prediku publikoan izateaz gainera, irakaspena pribatuan jasotzen duten “ikasleak” (ik. Mk 4, 10-20; 7, 17-23).

40. Jesusek, Eliza hamabi apostoluen gainean sortzen badu ere, *ez du ebanjelioaren zabalkundea bakarrik beraien esku utzi nahi*. Horrela, hirurogeita hamabiak aipatzen dira beste pasarte batean (ik. Lk 10, 1-16) eta Jesusen jarraitzaileen taldean esanguratsua eta etengabea da beti emakumeen presentzia (ik. Lk 8, 1-3) eta hauen egitekoa ez da Hura eta gainerakoak zerbitzatzea, irakaspenean bete-betean parte hartzea baizik (ik. Lk 10, 42). Jesusen mezua entzuteko ez zen nahitaezkoa ez aparteko baldintzarik (kultura, hezkuntza) izatea, ez bana-banakoen taldeko (eseniarrak, farisearrak) kide izatea ezta judu izatea ere. Denontzat da Berri Onera bihurtzeko eta bere jarraitzaile egiteko deia.

### III. HEZKUNTZA ELIZAREN AZKEN ALDIKO IRAKASPENETAN

41. Azken hamarkadetan, Elizak eskaini izan ditu hezkuntzari buruzko agiriak, eginkizun honen garapenerako benetan bikainak diren gidaliburuak. Aipagarriak dira, 1965eko *Gravissimum educationis* Deklarazioa eta 1990eko *Ex Corde Ecclesiae* Konstituzio Apostolikoa. Hezkuntza Katolikorako Kongregazioaren agiriak ere garrantzitsuak dira: *Eskola Katolikoa*, 1967koa; *Eskola Katolikoa hirugarren milurtekoaren atarian*, 1997koa; *Kulturarteko elkarrizketarako hezi Eskola Katolikoan*, 2013koa. Benedikto XVI.a Aita Santuak *Mezua Erromako Elizbarrutiari hezkuntza-larrialdiari buruz* agiria argitaratu zuen 2008an. Eta Frantzisko Aita Santuak hezkuntzaren gaiari eskaini dio sinodo osteko *Amoris Laetitia* aholku-hitzaren VII. kapitulua. Halaber, Euskal Herriko eta Nafarroako gotzainek hezkuntzari buruzko pastoral idazkia argitaratu zuten 1977an: *Problemas actuales de la enseñanza*.

42. Elizaren Doktrina Sozialaren *Laburbildumak* ere, hezkuntzak, bereziki gaur egun duen garrantzi erabakigarria ulertzeko lagungarri diren ideia bikain batzuk eskaintzen dizkigu. Aipatutako agiri horretan, hezkuntza funtsezko giza eskubidea dela esaten da (§155) eta baita nazioen eskubidea ere, kasu honetan bere elkarte ezarpen bezala ulerturik (§157). Hezkuntza gizartetako guztien onaren zati besterenezina da eta denok, giza-banako eta erakundeok, hura zaintzeko eta garatzeko erantzukizuna dugu (§166) eta herritarren partaidetza egiteko honetan, ondorioz, delako partaidetza horren helburu eta baldintza da, aldi berean (§191).

43. Gisa horretan, jarduera hezitzailea gizakiari dagokion eta utzi ezin duen egiaren bilaketaren nahitaezko osagaia dela azpimarratzen du Laburbilduma horrek (§198). Familia da gizakiaren lehen eskola (§210) eta seme-alaben osoko hezkuntza ezkontza-instituzioaren funtsezko helburuetako bat dela aitortzen da (§218) eta, ondorioz, gizarteari berak bakarrik eman diezaiokeen zerbitzu hil edo bizikoa eskaintzen diola eta hark eman diezazkiokeen laguntasun guztiak nahitaezko dituela (§237). Familiek, azken batean, beraien seme eta alabak hezteko eskubidea eta betebeharra dute eta, ondorioz, eskubide hori aitortu egin behar zaie eta laguntasuna eman betebehari burutu ahal izateko.

## IV. GIZAKIA ETA HEZKUNTZA

### IV.1. Gizakia, hezkuntzaren muina

44. Hezteko, ezinbestekoa da pertsona zer edo, hobeto esanda, nor den jakitea: hartu-emanen, elkartasunean dagoen gizakumea, besteei (elkartea), besteari (errealitatea) eta Transzendenteari (bere burua agertzera ematen duen Jainkoa) irekia. Egokia da *norbere buruari pertsona izateak zer esan nahi duen galdetzea*, emango dugun erantzunak lagunduko digulako hezigaiak norantz jo behar duen eta norabide horretan bide nagusiak zeintzuk diren jakiten. Gainera, pertsona ez doa bakarrik bizitzako bidetik, elkartean bizi den izakia da, beste batzuekin batera ibiltzen da. Pertsona bezala bizitzea, beste batzuekin, beste batzuen-gandik eta beste batzuentzat izatea da. Horregatik, hezkuntza ere elkarte-egitekoa da. Pertsona elkarte errealitatea bada eta beste batzuei begira bizi bada, arrazoi handiagoz, Jainkoari irekita eta begira dago, gizakia Jainkoak baldintzarik gabe sortu eta maite duen izakia baita.

**45.** Gizakiak hazi eta bere bokazioa betetzeko bideari ekin behar dio besteekin bat eginik. Pertsonak heztea, “beste pertsona batzuei izan behar dutena izatera hel daitezen laguntzea da”. Horrek elkarlanean aritzea eskatzen du, pertsonak osotasunera eraman ditzan bere alderdi guztiak: espirituala, intelektuala, afektiboa, borondatezkoa, gorputzarena eta komunitarioa. Transzendentziara irekitako pertsonaren alderdi guztien *osoko hezkuntzaren* alde jarduten dugu eta elkartasunean jarduten dugu, *hezkuntza-elkarte* (familia, ikastetxea, hezitzaileak, parrokia, mugimenduak, elkarteak, eta, azken finean, gizartea) bezala ezagutzen dugunaren barruan.

## IV.2. Gizatasunez bizitzen irakatsiko duen hezkuntza

**46.** *Pertsonen duintasuna sustatzea*, gizatasunez bizitzen irakastea, horixe da hezkuntza ororen helburua. Azken batean, hezigaiaren nortasunaren garapenean laguntzean eta munduan bere bokazioa bideratzean datza. Nork bere burua ezagutzen, baloratzen eta norbere osotasunerako bideari zintzotasunez ekiten laguntzea ere bada heztea. *Gizakiei dagokien erara bizitzen*, askatasunean zintzotasunez eta erantzukizunez ibiltzen eta maitatzen *irakastean* ere badatza hezkuntza. Era berean, *kulturaren hermeneutika* bezala eratzen da hezkuntza: honen bitartez, kultura transmititu eta interpretatu egiten da, bere elementurik egokienak hautatuz eta beste batzuk baztertuz. Honela kultura, aztertu eta berritu egiten da belaunaldiz belaunaldi.

**47.** Hezkuntzak ekarpen erabakigarria du *benetan gizatiarra den gizartearen eraikuntzan*, zuzentasunean, eginkizun eta egitasmotzat hartutako bizitza ororen defentsan, izadiaren eta osoko ekologiaren defentsan (Frantzisko Aita Santuaren *Laudato si'* entziklikarekin bat). Osoko hezkuntzak barne hartzen du, aldi berean, Transzendentziara irekitzea, delako alderdi hau gizakiari atxikita baitago eta bere osagarria baita. Jakin badakigu, “gizatasunez bizitzearen” helburua Jesukristoren errebelaziotik baizik ezin dela erdietsi bere osotasunean. Gizon egindako Hitzaren argiak bakarrik erakusten eta ematen dio gizakiari bere duintasuna. Vatikanoko II. Kontzilioaren baieztapenik nagusienetakoa da: «Egiaz, gizakiaren misterioa gizon egindako Hitzaren misterioan argitzen da soilik... Kristok, Adam berriak, Aitaren eta honen maitasunaren misterioaren errebelazioan, gizasemea agertzen dio bete-betean gizakiari berari eta beronen bokazioaren bikaintasuna erakusten dio» (*Gaudium et Spes*, 22).

## V. FAMILIA, HEZKUNTZAREN JATORRIZKO EGILE ETA ERAGILE

**48.** Familia da *hezkuntzaren oinarritzko eta jatorritzko gunea*. Seme-alabek, erabateko menpetasunetik askatasun arduratsuari dagokion burujabetzara doan bidea egiten dute. Familia, testuinguru hezigarri oso garrantzitsua da, pertsona bere osotasunerantz gidatzeko eremua eta aroa. Une hauetan, “behin-behineko kulturaren” eta “azkartasunaren kulturaren” garaian, bereziki garrantzitsua dirudi landu beharreko alderdi batzuk azpimarratzea, hala nola: itzaroteko, elkarbanatzeko, barkatzeko, besteei laguntzeko, onura hobearen mesedetan gogobetetasuna atzeratzeko, kontsumo-usadioak eta teknologia berrien erabilera arduratsua hezteko gaitasuna.

**49.** Nolanahi ere, familiako hezkuntzan *saihestu ezin diren hiru alderdi daude*: alderdi morala, afektibitatea eta fedea. Beharrezkoa da seme-alaben alderdi morala era kontziente eta arduratsuan heztea: ohitura egonkorak (bertuteak) sustatu, ona egiteko. Testuinguru honetan, garrantzitsua da arauak eta mugak ezartzea. Arrazoiaren, proportzionaltasunaren eta maitasunaren baitan dagoen diziplina, pizgarria da subjektu moralaren eratzean aurrera egiteko. Norbait maitasunetik eta konfiantzatik zuzentzen bada, azkenean, bera ere gurasoen egiteko horren alderdi positiboaz jabetzen da.

**50.** Pertsona ororen hazkunderan, baina bereziki gazteenengan, kontuan izan behar dugu beti ezinbestekoa dela mailaz maila joatea eta hezkuntza-egitekoan pazientziak jokatzeko eta itxaropenari eustea. Hezkuntza moral honi lotuta dago *alderdi afektibo-sexuala*. Honek, maitasunerako hezkuntzaren testuinguruan, informazio hutsetik harago doazen proposamenak eskatzen ditu. Ez da sexualitatearen kristau ikuspuntuaren aberastasuna garatzeko unea. Baina ezinbestekoa da dinamismo afektibo sexuak guztiak eta sexualitatea

bera, maitatzeko eta maitatua izateko oinarrizko bokazioaren osoko bizipenerako maitasunaren gorputz-hizkuntza bezala, integratzen dituen bertutea, kastitatea dela aipatzea. Bertute honek gauzatzen du “sexualitatearen lortutako integrazioa pertsonarengan, eta ondorioz gizakiaren barruko batasunean bere izate korporal eta espiritualean. Sexualitatea, non gizakiari gorputzaren eta biologiarene eremua dagokiola adierazten den, pertsonal eta benetan gizatiar egiten da buruz buruko hartu-emanen, gizonaren eta emakumearen elkarrenganako erabateko eta aldi baterako mugagabeko dohainean txertaturik denean” (CIC 2337). Halaber, “kastitateak nork bere burua menderatzen ikastea -azken batean, giza askatasunaren pedagogia garatzea eskatzen du” (CIC 2339).

**51.** Familiako hezkuntzak *fedearen transmisioa* gehitu behar du. Familia ebanjelizazioaren egile eta eragile aktiboa da. Familia bera ebanjelizatzailea da eta batez ete bizi-testigantza eta hitza du horretarako bidea. Familian ikasten da, naturaltasunez batzuetan eta pertsona eta inguruabar bakoitzari egokitutako erarik egokienak aurkitzeaz arduratuz, Jainkoarekiko intimitatea bizitzen, maitasunetik eta elkarte senetik bizikide izaten, zuzentasunaren alde elkartasunez konprometitzen.

**52.** Egia da, seme eta alaba bakoitzaren hezkuntza benetako erronka dena gurasoentzat. Ezinbestekoak dira jakintzak eta dohainak eginkizun hori aurrera eramateko eta hainbat aldiz azaleratzen dira ezintasuna eta ezgaitasuna bezalako sentimenduak. Baina guk *Familia Santuari* begiratu eta egitekorik ezinezkoena garatzeko graziaz eta dohainez beteak izan zirela ulertzen dugu: Gizon egindako Jakituria den munduaren Salbatzailea hezi eta Berarekin bat egin eguneroko bizitzan.

## VI. HEZITZAILEA ETA HEZKUNTZA-ELKARTEA

**53.** *Jakina, hezitzailea eta bere eginkizuna*, hezkuntza-elkartean, *funtsezkoa eta ezinbestekoa* da hezkuntzaren arloan. Hezkuntza askatasunen, hezigaiaren eta hezitzailearen elkartasunen, arteko elkartzearen testuinguruan ulertuz gero, pertsonarteko harreman hau funtsezkoa da. Hezitzaileei adore eta bihotz eman nahi diegu, beraien eginkizuna benetako bokazio eta misio bezala bizi dezaten. Horren gainean, zera zioen Benedikto XVI.a Aita Santuak: “Baliagarria izan daiteke benetako hezkuntzaren oren eskakizun batzuk antzematea. Lehenik eta behin, ezinbestekoak ditu maitasunetik sortzen diren hurkotasuna eta konfiantza: hurrek beraien gurasoekin bizi duten -edo bizi beharko luketen- maitasunezko lehen eta funtsezko esperientziak dihardut. Baina benetako hezitzaile orok badaki ondo hezteko bere buruaren zati bat eman egin behar duena eta horrela bakarrik lagun diezaiekela ikasleei beraien norberekoikeriak gainditzen eta benetako maitasuna eskaintzeko gaitzen” (Benedikto XVI.a, *Mezua Erromako Elizbarrutiari hezkuntzaren premiako egitekoaz*, 2008.eko urtarrilak 21). Benetako hezkuntza izango bada, nahitaezkoa da eginkizun horretan diharduenaren konpromiso pertsonala. Halaber, hezkuntza koru-egitekoa da. Ezin da bakarrik hezi, hezkuntza-elkartean baizik: familiekin, kideekin, ikastetxean, sarean beste hezitzaile eta zentro batzuekin eta gainerako hezkuntza eta gizarte eragileekin. Ikastetxeak hezkuntzan esku-harten duten eragile guztien jardura koordinatu hau ahalbideratzen du.

**54.** Hezitzailea, oren gaintetik, *egiaren eta itxaropenaren lekukoa* da. Hori dela-eta, Benedikto XVI.ak beste hau ere bazioen: “Hezkuntzak ezin dio uko egin autoritatearen gauzatze sinesgarritik sortzen den izen onari. Esperientziaren eta gaitasunaren emaitza da, baina norbere bizitzan koherentziak jokatzetik erdiesten da, batez ere, eta benetako maitasunaren adierazpen den konpromiso pertsonaletik. Ondorioz, hezitzailea, egia eta onaren lekukoa da; benetan, bera ere ahula da eta akatsak izan ditzake, baina behin eta berriz saiatuko da bere misioarekin ados jartzen” (Benedikto XVI.a, id.).

**55.** *Ez dago hezkuntza neutrorik*: askatasunen bategite izanik, beti dago, onerako ala txarrerako, hezitzailearen kontzientzia moralaren eta hezigaiarenaren arteko kontrastea. Eta bategite hau ezin da erantzukizunetik bereizi. Bere-berea duen osagaia da. Frantzisko Aita Santuaren esanetan, askatasun arduratsuen sustapena hezkuntza osatzen duten ezaugarrietako bat da (ik. AL, 262). Benedikto XVI.a Aita Santuak arduraz garatu zuen gai hau,

honela adieraziz: “Hezkuntzan, erabakigarria da erantzukizun sena: hezitzailearen erantzukizuna, jakina, baina baita, eta adinean aurrera doan heinean, seme-alabaren, ikaslearen, lanaren munduan sartzen den gaztearen erantzukizuna ere. Bere buruari eta besteei erantzuten dakiena da erantzulea. Gainera, sinesten duena lehenik eta behin Jainkoari erantzuten saiatzen da, honek maitatu baitu lehenik” (Benedikto XVI.a, id.).

## VII. HEZKUNTZAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK

**56.** Hezkuntzaren alde egiteak funtsezko oinarri hau abiapuntutzat hartzea eskatzen du: *eman egiten zaigun errealtate bat dago* eta guri hor sartzea eta, geure subjektibotasunetik harago, bere ulergarritasuna antzematea dagokigu. Oinarri hau aintzakotzat harturik, hezitzaileak eginkizun zoragarria hartzen du bere gain: “egia” hori guretzat ona izateaz gainera, erakargarria eta bizigarria dela erakutsi. Ez dago hezkuntzarik nihilismotik eta zentzurik ezetik. Nahikoa da Aristotelesen esamolde ezaguna gogoratzea: “Ez dago aldeko haizerik helmuga ezagutzen ez duten itsasontzientzat”. Pentsalari garaikide batzuek aipatzen duten “ideologien erortzearen” ostean, nihilismoa edo erlatibismoa gainditzeko gauza izan behar dugu, bizitzaren zentzua bilatzeko eragozpen delako eta giza bizitza nahiaren beraren neurriko pragmatismora murrizten duelako, eta errealtatea gertaera ulergaitzera.

**57.** *Giza bizia dohain eta misterio* bezala uler daiteke eta baita egitasmo bezala ere. Gizabanako bakar eta errepikaezinak gara. Bizia, eman egiten zaigun dohain zoragarria da. Hezkuntzari haren aurrean harritzeko eta esker ona adierazteko gaitasuna lantzea dagokio. Bizia eman egiten digute, baina ez eginik, ez bukatu. Geure etorkizunaren erantzule gara. Beraz, geure bizitza ere egitasmoa da. Nork bere burua ezagutzeko, nork bere burua den bezalakoa maitatzeko eta, gabezia eta makaltasunak gainditu beharreko erronka bihurtuz, hazkunderako bideari ekiteko hezitzen gara.

**58.** Ezin da itsu-itsuan edo hezitzaileen bat-batekotasunaren pentzutuan hezi. Hezkuntza-eragile orok *personaren alderdi guztiei erantzungo dien egitasmoarekin* bat garatu behar du bere misioa. Familiari dagokionez, egitasmo hau askotan inplizitua izango da, baina beti bere oinarritzko uste sendoekin bat etorriko da. Aitzitik, ikastetxeetan esplizitua izan behar du eta, beraz, hezkuntza-elkarte osoaren parte-hartzearekin, familiekin bat eginik, landuko da eta hauen beharrei erantzungo die.

**59.** Hezkuntza-egitasmoaren xedea ez da hezkuntza orokor bihurtzea. Hezkuntzak, izatez, *personalizatua* izan behar du elkarte-testuinguruan. Beraz, hezte, bideratzea ere bada, ikasleei lagun egitea, beraien garapenaren alderdi guztietan, gela eta taldearen mugak gainditzen dituen tutoretza-jardueraren bidez, gertutik, banan-banan, arreta eskaintzea. Hezkuntzak pertsona bakoitzaren ahalik eta garapen handiena ahalbideratzen du, ikaskuntza eta hazkunde pertsonalerako sustatuz eta ikasleen lankidetzeta eta partaidetzeta bilatuz beraien heziketarako. Ikasleen aniztasunari jaramon egiten dio beraien inguruabar pertsonal, familiako eta gizartekoak, beraien gaitasun, interes eta ikasteko erritmoak abiapuntutzat hartuz. Berezi, aparteko beharrak, desgaitasunen bat edo familia edo gizarte egoera bereziak bizi dituzten ikasleez arduratu behar du. Hezkuntzak ingurune segurua eskatzen du, era guztietako indarkeriatik aske den ingurune babestu, bero eta eroso; inguru horretan pertsona bakoitzari harrera, errespetua, maitasuna eta laguntasuna eskainiko zaio, ontasunean has dadin eta osotasunerako bideari ekin diezaion, edozein baldintza pertsonal, familiako edo sozialetik harago.

**60.** Hezkuntzak hezigaiaren *autonomia sustatzen du bere protagonismo eta erantzukizuna* piztuz bere ikaskuntza-prozesuan, bere autonomia eraginez, bere ahalegina baloratuz eta bere garapen betea bultzatuz pertsona bezala. Horregatik, hezkuntza-egitasmoak jakintza-alorretako jarduera akademikoa aurreikusi behar du eta zentroan aldarrikatzen den pertsonaren ereduarekin bat datorren jarduketa, prestatu dauden eta hezkuntza-helburu berak dituzten hezitzaileen taldeari esker. Halaber, orientazio akademiko-profesional banan-banakoa eta irekia eskaini behar du; eta, ikasteko duen erritmoa errespetatuz, ikasle bakoitzaren hobetze pertsonalerako egitasmoa garatuko duen ebaluazio pertsonalizatua egitea.

**61.** Hezkuntzak *gizakia eraldatu egiten du*: hezigaiaren gaitasunen garapenera eta bere bikaintasun pertsonal eta profesionalaren lorpena bideratzen du; pertsona askeak, helduak, kritikoak, sortzaileak, lehiatsuak, aldaketan bizitzeko, aldaketa sustatzeko eta etorkizun senez jokatzeko gauza diren pertsonak hezitzea du helburu. Portaera hauek sustatzen ditu, ikasleengan sormena eta ekimen sena garatuz. Ahaleginaren kultura, lanaren etika eta ondo egindako gauzen balioa sustatzen du.

**62.** Hezkuntzak, *jakintzak eta gaitasunak eguneratzeko bidea ematen du*, bizitzan zehar lagun bakoitza ikaskuntzan bertan esku-hartzera bultzatuz. Bertuteak, ikasketa-metodoa jades tea ahalbideratzen du, iraunkortasuna eta ahalegina ikaskuntzarako, eta lagun bakoitzarentzat egokiak diren lan-ohitura eraginkorrak erdieste. Ikasketen luzapena baino gehiago interesatzen zaio beraien intentsitate eta sakontasuna. Ikasleen parte-hartzea bultzatzen du berrikuntza pedagogikorako egitasmoetan.

**63.** Hezkuntza-egitasmoa ikasleei dagozkien *erkidego-alderdiez* arduratzen da batez ere, besteekin eta besteentzat izan eta bizi daitezen. Hezkuntza solidarioa bultzatzen du, jarrera eta portaera arduratsuak, neurritsuak eta jasangarriak sortzen dituena. Aukeren berdintasuna eta ikaskuntza iraunkorrerako prozesuetan parte-hartzea bermatzen du. Gure ikasleek gure herria, tradizioa, hizkuntza eta kultura balora dezatela nahi du, gizakiak auzi unibertsalaren alde ere egin behar duela ahaztu gabe. Hainbat etnia eta kulturatako pertsonak bizikide izaten laguntzen du, bide sortzaile eta aberasgarriagoetatik. Zuzentasun eta bakearen aldeko konpromiso askea ahalbideratzen du, boluntario-esperientziak sustatuz.

**64.** *Afektibitatearen eta maitasunerako bokazioaren hezkuntza* funtsezko elementua da bizitza pertsonalean eta, ondorioz, egokitasunez hezi eta umatu behar den eremua. Ezinbestekoa da aurreiritziak, menpekotasunak, konformismoak gainditzea. Gizon eta emakumearen funtsezko bokazioa zorientasuna dela aitortu behar dugu. Jainkoak aske eta zoriontsu nahi gaitu. Ezin ditugu besteak zorioneko egin, gu geu zorioneko ez bagara. Gorputzaren hizkuntzak norbere nahiak ulertzen eta hezitzen laguntzen duen ikaskuntza jasankorra behar du, maitasunerako norbere bokazioa egiaz bizi ahal izateko. Horregatik, benetako hezkuntzak barne hartu behar du hezkuntza afektibo-sexuala non era askotako eragileek bat egiten duten: biologikoek, genetikoek, izaerak, familiaren historiak, kulturak, bizi izandako esperientziek, jasotako prestakuntzak, adiskideen, senideen eta miresturiko pertsonen eraginek eta hainbat inguruabarrek.

**65.** Nagusi diren ideologiekiko atxikimendurik ez duen *antropologia egokian* oinarritu behar dugu benetako hezkuntza afektibo-sexuala, Frantzisko Aita Santuaren esanetan, haiek kolonizatu egiten dute eta. Sinodoaren osteko *Amoris Laetitia* aholku-hitzean haxe dio Aita Santuak: “Oro har ‘gender’ deituriko ideologiaren molde desberdinetatik sortzen da beste erronka bat. Delako ideologia horrek gizon eta emakumearen arteko desberdintasun eta elkarreagin naturala ukatu egiten du. Sexu desberdintasunik gabeko eta familiaren oinarri antropologikorik gabeko gizartea aurkezten du. Ideologia honek, gizonaren eta emakumearen arteko aniztasun biologikotik erabat bananduriko nortasun pertsonala eta intimitate afektiboa eragiten dituzten hezkuntza egitasmo eta gidalerro legegileak dakartza... Kezkagarria da, batzuetan ulergarriak diren aukera batzuei erantzun nahi dieten honelako ideologiak pentsamendu bakar bezala ezarri nahi izatea, hainbat aldiz, baita haurren hezkuntza baldintzatzeraino ere” (AL, 56).

**66.** Honi dagokionez, Espainiako Gotzainen Batzarrak bere iritzia agertu zuen 2012an, “*Giza maitasunaren egia. Senar-emazteen maitasunari, genero-ideologiari eta familia-legeriari buruzko orientabideak*” delako agirian. Bertan esaten da genero-ideologia, gizakiaren kristau ulermenarekin bat ez datorren antropologia dela, gizakiaren izaerak berezkoa duen gizonaren eta emakumearen arteko elkarrekotasuna eta osagarritasuna baliogabetu egiten duelako eta sexuaren eta generoaren arteko erabateko bereizketa eragiten, sexua zentzu pertsonal oroz gabetuz eta generoari sustrai biologiko oro ukatuz: antolatze kultural hutsa izango litzateke. Aipatu dugu lehen Espainiako Konstituzioan jasotzen dena: “botere publikoek gurasoei dagokien esku-bidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe” (27, 3 art.). Horregatik ezingo litzateke onartu botere publikoen (legeen eta beste xedapen

batzuen bitartez) edo beste eragile batzuen *esku-hartze desegokirik* gurasoek, seme-alabak afektibitate eta maitasunean beraien uste sendoen arabera hezitzeko duten eta ikastetxearen idearioan jasotzen den eskubide-betebeharrean. Genero-ideologia ezeztatzea ez da, ezta gutxiago ere, inoren aurka egotea. Alderantziz, kristau humanismoak gizon eta emakume ororen baldintzarik gabeko errespetua sustatzera garamatza, edozein izanik ere bere joera edo egoera pertsonala; delako humanismo horren eraginez, gainera, pertsona guztiak onartu, zaindu, maitatu eta babestu egin behar ditugu eta hezkuntza-elkarte osoari dagokio guzti hori gauzatzea.

**67.** Ezinbestekoa da *benetako balioetan hezte*a, hezkuntza horrek *dohainak*, hezigaiari ona aukeratzen laguntzen dioten ohitura operatiboak, sor ditzan. Honen inguruan, gurasoen eginkizunak borondatearen hezkuntza eta onaren aldeko usadio eta jarrera afektibo onen garapena barne hartzen dituela dio Frantzisko Aita Santuak. Formakuntza morala metodo aktiboekin eta seme-alaben berariazko sentsibilitatea eta hizkuntza erantsiko dituen hezkuntza-elkarrizketarekin egin beharko litzateke. Gainera, beharrezkoa da formakuntza hau era induktiboan egitea, eta ez egia eztaba daezintzat ezarriz, seme-alabak bere kabuz jabe daitezen balio, oinarri eta arau batzuen garrantziaz (ik. AL, 264).

**68.** Hezkuntzaren barnean sartzan da, era berean, *askatasunaren hezkuntza*, ona, egiazkoa aukeratzen irakastea, mailaz maila portaera aldaketak lortuz hezigaiarengan, ohitura txarrak alde batera utziz eta ona aukeratzeko joera afektiboak eta ohiturak sustatuz. “Hezkuntzak berekin du bidegurutzetan zentzuz eta adimenez hautatuko duten askatasun arduratsuak, beraien bizitza eta elkarteara beraien esku dagoela eta askatasun hori egundoko dohaina dela murrizketarik gabe ulertuko duten pertsonak, suspertzeko egitekoa.” (Frantzisko Aita Santua, AL, 262).

**69.** Hezkuntzak *heldutasun moral eta intelektualerantz* gidatzen du, talentu eta aukera guztiak garatuz, adimen sortzailea zabalduz. Ez datza hainbeste jakitean, jakin dakiguna erabiltzen ikastean eta biziaren esanetara jartzean baizik. Hezkuntzak barne hartzen du norbere gorputzaren eta besteen gorputzaren osasunaren balorazio, errespetu eta zaintzea.

**70.** *Fede-hezkuntzak*, gizakiaren transzendentziarako nahi sakonaren erantzun bezala, bizitzaren benetako zentzua agertzera ematen du. Ez da nahikoa barnekotasunean hezitzea. Hezkuntza hori ez da nahikoa eta kristau esperientziaren edukiak -Jesusen ikasleen bidea; Berarekin bat egitea bizitzan eta bere jokamoldea nork bere egitea; Jainkoaren Erreinuaren eraikuntza; kristau ospakizunean eta Jainkoarekiko elkarrizketa eta dohain bezala ulerturiko otoitzean parte hartzea eta fedearen egia aitortzea<sup>19</sup>- jasotzen dituen benetako espiritualtasunaren lantzearen beraren aurreko alditzat jo daiteke. Gure egunotan, espiritualtasunaren hezkuntzan kristau gertaeraren ezaugarri nagusia den Errebelazioaren originaltasuna ahazteko arriskua dago. Jainkoak berak aurrea hartu eta gizakiaren bila jo du eta, horregatik, ezin dugu kristau esperientzia gure barnekotasunaren arakatzerantz murriztu. Jesusek San Joanen Ebanjelioan dioenez: “Ez ninduzuen zuek ni aukeratu, neuk zintuztedan zuek aukeratu” (ik. Jn 15, 16). Barruko isiltasunean hezitzea beharrezkoa bada ere, isiltasun hori ezean, zaila izango delako Ebanjelioaren mezua jasotzea, ezin dugu ahaztu Jainkoaren Errebelazioa ez dagoela isiltasunean, Jesukristorengan agertzera emandako Hitzean baizik. Kristauarentzat, barnekotasunean hezte Jesukristorengan gertatzen den Errebelazioaren harrerara eta ikasle esperientziara irekitzen duen atarikoaren antzekoa da<sup>20</sup>.

**71.** Pertsona, pentsaezina da bestea gabe. Lagunartekoa, elkartekoa eta familiartekoa da. Bere lehen nortasuna, familian seme-alaba izatea da. Gure izatasunaren arabera, *beste batzuekin hartu-emanen bizitzeko gaitasuna dugu*, beraien ona eta zoriona bilatuz. Eta besteekiko harreman horrek, sozializazioak, gizarte zuzen eta anaikorra eraikitze konpromisoak, hezkuntzaren funtsezko osagai izan behar du.

<sup>19</sup> Honi dagokionez, Fedearen Doktrinarako Kongregazioaren “*Gutuna Eliza katolikoko gotzainei Kristau hausnarketaren inguruko alderdi batzuei buruz*” (1989.eko urriak 15) agiria berriz irakurtzea komeni da.

<sup>20</sup> Beren-beregi gazteei zuzendutako idazkiak daude eta, era organikoan, kristau esperientziaren oinarriko osagaiak jasotzen dituzte: euskarara itzuli berri dugun ‘YouCat’ eta gazteak Elizaren Doktrina Sozialaren funtsezko alderdietan hezitzen dituen ‘DoCat’.



72. *Lanaren, enpresaren eta ekonomiaren* eremurako trebatzera ere bada hezitzea. Honi dagokionez, 2011n kaleratu genuen *Ekonomia gizakiaren esanetara* pastoral idazkiari lotuko gatzaizkio. Bertan, gizakia, ekonomia- eta lan-jarduera ororen erdian jartzea nahitaezkoa dela nabarmendu genuen; maitasunak suspertutako zuzentasun ebanjelikoa bultzatu behar dela eta ahulenek izan behar dutela lehenetsuzko arretaren jasotzaileak. Aipagarria da, horren haritik, lanbide-prestakuntzaren garrantzia hezkuntza-egitekoaren zati esanguratsu bezala, horri esker, guztien gizarteratzea, eta batez ere ahulena, ahalbideratzen delako.

73. Gaur egun, *informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien* (TIC bezala ezagutuak) *erabilera*, batik bat sare sozialen erabilera, erronka da gizakiaren garapenerako. Arlo honetan beren-beregi arreta jarri eta heziketa egokia garatu behar da baliabide informatikoak jadetsi eta sarean, batik bat gizarte sareetan, edukiak era seguru eta arduratsuan erabili ahal izateko. Une honetan, humanismoaren eta teknologia berrien integrazioa da hezkuntzak aurrez aurre duen erronkarik handienetakoa. Indarrez ugaritzen ari dira eta horrek biziki ahalegintzea eskatzen du, moldatu, prestatu eta egokitasunez erabili ahal izateko. Atzera begiratu gero, teknologia berrien agintza, hau da, gizakia askatzekoa, ez dela betetzen ari ikusiko dugu. Kontraesana badirudi ere, hainbat zeregin errazten digute, baina pertsonak gero eta estresatuago, lanpetuago bizi dira eta zailtasun ugari dute familia, jarduera erlijiosoa edo adiskidetasuna lantzea bezalako alderdi garrantzitsuetarako astia hartzeko. Kontua, beraz, ez da tresna informatikoak ikuspuntu teknikitik erabiltzen irakastea bakarrik, gizatasunez eta arduraz erabiltzeko irizpideetan hezitzea baizik.

74. Hezkuntzak *oinarrizko gizarte auziak* barne hartzen ditu. Horien artean, bakerako hezkuntza gailentzen da, adiskidetzaren arloan bultzaturiko era bateko eta besteko ekimenak bereziki beharrezkoak diren eta egokitasunez bultzatu beharra dagoen testuinguruan. Halaber, ezinbestekoa dugu behartsuen, gaixoen, etorkinen sufrimenduen ardura hartzea eta arintzea. Goseak, gerrak eta bidegabekeriak gizakia alienatu egiten duten herrialde eta lurraldeekin lankidetzaren sareak eratu beharra dugu. Nahitaezkoa da osoko garapena nazio guztietan hedatzea eta erantzukizuna daukagu giza duintasunaren, zuzentasunaren, bakearen eta oparotasunaren hezkuntzan eta sustapenean. Honi dagokionez, etorkinak eta, edozein baldintzapenetik harago, pertsona guztiak barne hartuko dituen hezkuntza, aukera-berdintasuna aldarrikatuko duen hezkuntza, guzti-guztiontzat bikaina eta kalitatekoa den hezkuntza, aldarrikatzea eta bultzatzea tematu behar dugu beti.

75. Hezkuntza aipatzen dugunean, ezinbestekoa da *lanbide heziketaren* garrantzia azpimarratzea eta eskerrak ematea, hainbat laguni, gazte nahiz helduri, eskaintzen dien zerbitzuagatik, beraien osotasunerako bidean lanaren eremuan eta gizartearen aldeko zerbitzuan txertaturik, etorkizunari ilusioz eta itxaropenez begiratzeko aukera ematen dielako.

## VIII. ESKOLA ETA UNIBERTSITATE KATOLIKOA

76. Hezkuntza Katolikoa ere (eta atal honetan azalduko ditugun osagai nagusiak, eskola- nahiz unibertsitate-hezkuntzari dagozkienak) aztertu berri ditugun erronketan murgilduta dago. Baina, bere izaera (Elizaren misio ebanjelizatzailearekin bat) dela-eta, beren-beregi beste batzuk ditu. Eskola eta Unibertsitate Katolikoak Jesusengandik Berarengandik hartzen dute inspirazioa, bere jardura salbatzailetik eta Jainkoaren Erreinuaren balioetatik. Ikuspuntu honetatik, beste ezer baino lehen, *ikastetxearen eta familien arteko hezkuntza-ituna azpimarratu beharra dago*, itun horren arabera haur eta gazteak lehenesten direlako, beraien giza eta kristau garapena, zoriona, itxaropena bideratu eta hezkuntza-misioaren ardatz izateari erantzunez. Ikastetxe katolikoek, gurasoekin batera, adorea hartu behar dute ikasleei hazten laguntzeko misioan, mundua Jesusen maitasunezko begiradatik ikusteko eta bizitza Jainkoa zerbitzatzeko dei bezala ulertzeko gauza diren heldu prestatu izatera hel daitezen.

77. Ikastetxe katolikoek *gizarte onargarritasuna ziurtatzeko* erronkari aurre egitea beharrezkoa da, titular-tasun publikoko erakundeek hezkuntza-beharren estaldurarako testuinguruan. Biziki eskertu nahiko genuke hainbeste ordena, kongregazio eta institutu erlijiosoren lana, gorputz eta arima eta pasioz ari baitira

hezkuntza-karisma garatzeko ahaleginean, beraien bitzta eta egintzan pedagogia, espiritualtasuna eta pastoralgintza uztartuz. Guztiz premiazkoa da kristau hezkuntzaren balio erantsia nabarmentzea; bere hezkuntza-bikaintasuna ulertzea, ez lehiakortasunaren ikuspuntutik, lehenik eta behin misioaren eskakizun bezala baizik; iritzi publikoaren aurrean hezkuntza-egitasmoak oinarritzea, berariazko nortasunarekin, beraien uste sendo eta sinestean arabera, seme-alaben hezkuntzan nolabaiteko laguntasun ordezkatzaila behar duten familien askatasunean. Era berean, *beren-beregi eta proposizio erara sustatu behar da kristau nortasuna*, bere adierazgarritasun, nabarmentasun eta eraginari eutsiz, axolagabetasunez, eta kasu batzuetan etsaitasunez, bustiriko testuinguruan. Zuzendaritza-taldeak osatzen dituzten pertsonen profil eta hautaketa eta garatzen duten beharra alderdi erabakigarriak dira ikastetxeen nortasun eta misioa ikuspuntu garbiro ebanjelikotik ziurtatzeko. Talde hauei ere gure esker ona adierazi nahi diegu eta gure babes osoa eman. Eskola Katolikoaren nortasuna bermatuko bada, familiek nahitaez esku-hartu beharko dute hezkuntza-egitekoan.

**78.** Krisi demografiko eta ekonomiko hedaturik den unean, jabetzen gara beharrezkoa dela *ikastetxe katolikoan iraunkortasuna* ziurtatzea eta beraien zuzen kudeatzea. Baina honen inguruan hartu daitezten neurri guztiak, erakunde nahiz egitura mailan, Elizaren Doktrina Sozialaren arabera, Hezkuntza Katolikoari dagozkion ezaugarriari eutsiz hartuko dira, hala nola, hautabide eta eraldatzaile izatea gizartean.

**79.** Ikastetxe katolikoek ez dituzte hezkuntzaren funtsezko alderdiak, esate baterako, alderdi espirituala, gizonaren eta emakumearen arteko duintasun bera, biziaren balio eta duintasuna ibilbide osoan, alderdi afektibo-sexuala, behartsuen, baztertuen, etorkinen aldeko zerbitzuaren alderdia, zuzentasun eta errukiaren sustapena, barkamena eta bakea..., *ikastetxearen idearioaren lekukotasuna bizitzan agertzen eta konpartitzen ez duten eragileengan ez baztertu ez beraien esku utziko*. Ez dira gure kultura testuinguruan gizakiaren kristau ikuspuntua era positibo eta proposatzailean eskaintzearen beldur izango, erlatibismoa eta ideologiaren kultura kolonizazioa saihestuz. Halaber, ez dira baztertu behar Elizaren Doktrina Sozialaren inguruko funtsezko alderdi batzuk eta Frantzisko Aita Santuaren *Laudato si'* entziklikan jasotzen diren erantzun eko-sozialari buruzkoak.

**80.** Behartsuak bere salbamenezko jardueraren erdian jarri zituen Jesusengan jartzen du arreta Eskola Katolikoak. Beraz, gizon eta emakume orori harrera eginez eta jatorrizko tradizio kultural eta erlijioso desberdinekiko elkartzaren kultura sustatuz, berri ona guztioi, eta bereziki behartsu eta txikiei, hots egitera etorri zen Nazaretoko Jesusen ikuspuntutik proposatzen du bere egitekoa<sup>21</sup>. Horregatik kalitatezko hezkuntza eman behar du, zailen duenaren alde aparteko ahalegina eginez. Eta jarduera horretan, pobretasun berrien erronkari erantzun behar die, aukeren berdintasuna sustatuz eta zailtasun handienak dituztenei arreta handiago eskainiz. Desgaitasunen bat duten pertsonen arreta bikaina eskaintzeak eta beraien inklusio beteak lortzeak hezkuntza katolikoaren bereizgarria izan behar du. Baita etorkinen harrera eta behin-behineko laguntza beraien familiei, batik bat bazterketa jasateko arriskuan badaude. Halaber, gazte askorentzat, lanbide heziketa bide estimulatzailea da eta beti zabalik dago garapen pertsonal, sozial, ekonomiko eta politikoan funtsezkoa den gizarte-laneratzeko. Eskola Katolikoaren berariazko bereizgarri izan behar duen aukera da.

**81.** Behartsuen aldeko lehentasunezko aukera ebanjelikoa ez dago hezkuntza eta *pastoral kalitatean bikaintasuna* zaintzeaz arduratzearen aurka. “Behartsuen aldeko lehentasunezko aukerak barne hartzen du bitartekoen aldeko lehentasunezko aukera jendea bere miseriatik atera dadin, eta hezkuntza katolikoa da horretarako bitarteko egokienetako bat” (ik. Hego Amerikako Gotzainen Ohiko Laugarren Biltzarra, *Santo Domingoko agiria*, 275). “Eskola katolikoa, Elizaren jarduera ebanjelizatzaileko garrantzitsua izateaz gainera, hainbat lekutan, familia behartsuetako haurrei, bereziki gazteei, benetako aukerak ziurtatzen dizkieten bakarra da, pobretasunari aurre egiteko eta gizartearen bizitzan benetan laguntzeko aukera eskainiz. Eskola katolikoak komunitaterik behartsuenean, zorigaiztokoenen eta ahulenen alde eginez, garatzen duen egitekoa sustatu egin beharko litzateke.” (*Relatio synodi 2015*, 68).

<sup>21</sup> Ik. HEZKUNTZA KATOLIKORAKO KONGREGAZIOA, *Kultura arteko hartu-emanerako hezi eskola katolikoan*, 2013.

**82.** Hezkuntza katolikoak, era berean, *hezkuntza-elkarteko eragile desberdinen integrazioa* ahalbideratzen du (familiak barne, jakina), beraien erantzukidetasuna eta konpromiso egiazko, eraginkor eta parte-hartzailea ahalbideratuz ikastetxeetan, horrela hezkuntzaren arloko eragile desberdinen sinergia lortuz. Hezkuntza, maisu baten bakarkako egintza ez ezik, hezkuntza-egitasmoan islatzen den egiteko kolegiatua dela gogoratu behar dugu beste behin ere. Hezkuntza-egitasmo Katolikoak akonpainamenduaren kultura garatu behar du, ikasle bakoitzari arreta eskainiz, onartua, maitatua eta errespetatua sentiaraziz, eta bere osoko garapenerako bitarteko guztiak emanaz.

**83.** Eskola *Katolikoak hezitzailea gozotasunez baloratzen eta zaintzen du*. Horri dagokionez, bere nortasuna landu beharra dago, erreferentzia izan dadin bere eginkizun hezitzaile eta ebanjelizatzailean, eta irekitasuna erakutsi dezan etengabeko berrikuntza eta hobekuntzarako. Arlo honetan funtsezkotzat jotzen dugu hezitzaile katolikoak otoitzean, sakramentuetan eta Elizaren bizitzan Jainkoarekin bat egitearen ohiko esperientzia izatea. Bakarkako otoitza, egunero Jainko infinituarekin bat egitea, horixe da tresnarik eraginkorrena, modan denaren ibaiak aurrean daraman oholaren antzera, errealitate aldakorren aurrean amore ez emateko. Jainkoak une oro baliozko, on eta eder denaren giltzak ematen dizkigu. Hortik, hezitzailea jakituria, on, egia eta edertasun iraunkorren lekuko eta maisu bihurtzen da.

**84.** Ikastetxe katolikoek *Eleizako kide izatea*, Eleizaren misioan partaidetza sena eta Eleizaren misioarekiko elkartasuna sustatu behar dute, tokian tokiko eremuan nahiz mundu-mailakoan. Horregatik bidezkoa da inguru edo bizigiro jakin batean hezkuntzan esku-hartzen duten guztiez osaturik den eta hezigaiei hiritar zintzo eta kristau on bezala hezteko gaitasuna ematen dien hezkuntza eta pastoral elkarteaz hitz egitea. Eskola eta Unibertsitate Katolikoak, gainera, ebanjelizazio eta eliz esperientziarako leku izan behar du. *Oinarrizko eta zeharkako alderdia* da, ez bigarren mailako zerbeit: bertan, beren-beregi iragarri behar da Ebanjelioa, honen arabera bizitzen saiatu, eta fedeko sarbidea, otoitza, bizitza espiritual eta sakramentalak, bokazio bereizketa, eliz txertatzea, jarduera solidarioak, behartsuen aldeko zerbitzua, zuzentasunaren aldeko konpromisoa sustatu. Jarduera hezitzailea bera da ikastetxearen misio ebanjelizatzailea. Ez da programaturiko ospakizun batzuk edo pastoral sailak diseinaturiko jarduera puntual batzuk egitera murrizten. Ikastetxe osoaren baterako egitekoa da. Osoko hezkuntzak ez du konpartimentu iragazgaitzik. Izadiaren, historiaren, kulturaren, biologiaren, e.a., mundu-ikuskera kristaua sustatzen dugu, jakiteko eta errealitatearen adigarritasuna ezagutzeko benetako nahia piztuz. Hezkuntza Katolikoak hezigaien barne-barneko gunera iristen saiatu behar du, haiei espiritualtasuna lantzeko eskaintza zehatzak eginez. Eta delako proposamen horiek sormenezkoak izango dira, esanguratsuak, kristau tradizio aberatsetik bereizi gabe dauden eta gure barruan zalantzarik eragiten ez duten eta fedea lantzeko biderik erakusten ez duten *light* formulak alde batera uzten dituzten proposamenak.

**85.** Pastoral ikuspuntutik, *oinarrizko eta osagarritzko hiru zutabek eusten diote hezkuntza-egitekoari*: familiak, kristau elkarteak (pastoral barrutiak, parrokiak, laikoen mugimendu eta elkarteak) eta eskolak. Hiru hezkuntza-eragileok, koordinatu eta helburu berari begira bat egin behar dute: pertsona bakoitzaren osoko kristau hezkuntza ahalbideratu. Osoko pastoraltzarantz jotzea eskatzen du horrek, aldi berean, jarduera hezitzailearen subjektu hartzaile jasotzaile eta subjektu eragile eta erantzunkide den familiaren berriazko egitekoa errespetatuz. Pastoral ikuspuntutik, pertsonen kristau eta osoko hezkuntzaren egitekoa jokoan jartzen den hiru 'eremuen' trataera bateratua eskatzen du honek. Eta gaur egun, hezkuntzaren arloan sarean jardutea ere (ikastetxean bertan nahiz ikastetxetik kanpo) garrantzitsua da. Hori dela-eta irakasleek, bereziki Erljiokoek, pastoral eragileekin, kristau elkartearekin eta familiekin elkarlanean jardutearen garrantzia.

## IX. ESKOLAZ KANPOKO ETA GIZARTE HEZKUNTZA, INFORMALA ETA AISIALDIKOA

**86.** Hezkuntza ez da familiaren, eskolaren eta parrokiaren eremura mugatzen. Hamaika ordu sartzen dute gure haur, nerabe eta gazteek beste hainbeste eremutan. Aisialdiko hezkuntzaren eremuak nabarmentzen dira horien artean, eta era askotara eraturik daude. Era berean, ohikoa da kirol-, jolas- eta kultura-jardueretan parte-hartzea. Nahitaezkoa da giza, erlazio eta fede kalitatea zaintzea eremu hauetan.

**87.** Estilo indibidualista hedaturik dagoen giroan, guztiz beharrezkoa da *sozializazioan hezte*a, pertsonarteko hartu-emanen teknologia berrien erabileraren eraginez hondatu eta gutxitu ez dadin, komunikazio eta informazioaren teknologia (TIC) berrien erabilerak neurri gabeki erakar ez dezan haur, gazte eta nerabeen artean (ik. Frantzisko Aita Santua, AL 276, 278). Halaber, gizarte kontsumistan, erabili eta botatzearen gizartean, ezinbestekoa da kontsumo arduratsuan, soiltasunean eta erantzukizunean hezte (ik. AL, 277). Dena berehala nahi den giroan, itzarotea kudeatzen, prozesuak garatzen, ahalegina, iraunkortasuna, pertseberantzia lantzen ikasi beharra dago (ik. AL, 275). Nagusiki hezkuntza-osagaiak diren hauek hezkuntza-eremu formalean ez ezik hezitzen eta gure haur, nerabe eta gazteen nortasunaren garapenean eragiten duten gainerako bizigiro guztietan agertu behar dute.

**88.** Aisialdiko hezkuntza, *fedean hezte*ko eremu egokia ere bada. Mugimenduak, komunitateak, elizbarrutietako ekimenak, kongregazio erlijiosoak, eremu honetan azaltzen dira fedearen arloa utziezineko alderdi bezala barne hartzen duen aisialdiko hezkuntza eskaintzeko. Guzti horien egitekoa bereziki beharrezkoa da haur, nerabe eta gazteek jasotzen dituzten eta, askotan, adin horietan beraien garapen eta hazkunde pertsonalerako behar dutenarekin bat ez datozen era askotako eskaintzen aurrean. Hezkuntza-alderdi hauei eskaintzen dieten ahalegina eskertzen dugu eta adore ematen diegu familia, gizarte eta Elizarentzako laguntasun handia den eginkizun horretan.

## X. HEZKUNTZAREN ALDERDI SOZIAL ETA POLITIKOAK

### X.1. Hezkuntza, eskubide eta betebeharrak

**89.** Ezinbestekotzat jotzen dugu hezkuntza *funtssezko giza eskubidea* dela baieztatzea. Eta, horrekin batera, gizarte kohesiorako osagaia dela eta etorkizunari begira dagoela esango genuke, gaitasuna duelako guztien aukerak berdintzeko gizartean, haurtzarotik, abiapuntuko baldintzetan eman ematen diren desberdintasun ekonomiko, kultural, sozial eta erlijiosoak zuzenduz. Giza Eskubideei dagokienez, gogoratu beharra dago, beti daudela betebeharrak eta erantzukizunak. Botere publikoek derrigorrez aitortu behar dituzte eta haien gauzatzea ahalbideratu. Arlo honetan, irakasle-lanbidearen prestakuntza eta aitortza landu beharko da; hezitzaileei ezinbesteko aginpidea eskertu, sustatu eta egotzi; hezkuntza-elkarteak sinesmen, gizarte edo ekonomia egoera desberdineko familien elkartzerako eremu bezala duen eginkizuna aitortu eta bultzatu.

### X.2. Hezkuntza-ituna: egonkortasuna eta blindatzea alderdikeren aurrean

**90.** Hedaturik dagoen iritziaren arabera, hezkuntza, gure erakundeetan, elementu alderdikoi eta ideologikotzat hartzen da, eta gobernu bakoitzak bere hezkuntza-legea proposatzen du adostasun ez nahikoarekin eta, ondorioz, izugarri neketsu eta korapilatsu gertatzen da *Estatuko ituna* egitea eta, horren eraginez, hezkuntza etengabeko eztabaidan murgildurik dago. Demokrazia parlamentarioa ezarri zenetik, zazpi hezkuntza-lege izan ditugu, horietako bi ezarri ez badira ere. Hezkuntza aldatu egin daiteke, baina tartean dauden instantzia guztien elkarriketa eta adostasunetik, beraien eginkizunean sinetsita dauden hezitzaileengandik eta denok asko eman diezaiokegun gizarte ondasuntzat eta ez eztabaida politikorako arlotzat jotzen duen lehen mailako gizarte egitasmotik. Biziki arduratzen gaitu hezkuntzaren inguruan esku-hartzen duten hezkuntza eta politika

eragileen arteko distantziak, eta are gehiago konfrontazioak. Politika eta hezkuntzaren arloko eragileen sen ona arren eskatzen dugu, gure gizartearentzat eta gure haur eta gazteentzat *akordio mesedegarri handirako aukera* eman dezakeen hezkuntzari buruzko benetako eztabaida *sustatu ahal izateko*. Testuinguru honetan adierazi behar da hezitzaile, maisu eta irakasleenganako esker ona, babesa eta laguntasuna eta ikastetxeek proposatzen dituzten kalitate eta bikaintasuneko egitasmo integratzaileen aitormena. Halaber, beren-beregi ahulenen beharrezanetan arreta jarri behar da, aukeren berdintasuna bermatuko duen hezkuntza bikaina erdi-esteko aukera ziurtatuz guztiei.

### X.3. Errespetu eta babesa gurasoen hautatzeko askatasun eraginkorrari

**91.** Seme eta alabak beraien oinarri eta uste sendoen arabera hezteko gurasoen hautaketa-eskubidea nazioarteko legeria nagusietan jasota dago, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta Espainiar Konstituzioa barne, Idazki honen hasieran gogoratu denez. Azpimarratu beharra dago, *eskubide hau familien beraien jatorrizko* eskubidea dela eta *eraginkortasunez babestu* behar dela. Administrazioek ziurtatu egin behar diete gurasoei beraien egitasmo pertsonalari eta familiaren egitasmoari ondoen erantzungo dieten hezkuntza-proposamen eta idearioen hautaketa askearen gauzatzea. Ikastetxeetan ikasleen onarpenerako baremazioan erabilitako irizpideak aztertu egin beharko lirarteke, hezkuntza eta ikastetxea askatasunez hautatzeko eskubide hau benetan bete dadin eta praktikan galarazita edo mugatuta gera ez dadin, beti ere beraien oinarri eta uste sendoekin bat, beraien seme eta alabak ikastetxe katolikoetan edo beste batzuetan heztea nahi duten familientzat.

### X.4. Familia asoziazionismoaren sustapena

**92.** Seme-alabentzat nahi duten hezkuntza hautatzeko gurasoen askatasunarekin loturik, ezinbestekoa da *familia asoziazionismoa eta bere presentzia sustatzea hezkuntza-eremuetan*. Honela, ikastetxeetan eskaintzen den hezkuntzan benetako parte-hartzea eta bere jarraipena ziurtatzen da, familien benetako beharrei erantzun diezaien eta benetan errespetu dadin beraien seme-alabei eman behar zaie hezkuntza aukeratzeko lehentasuneko eskubidea. Gurasoek ikastetxeetako aiten eta amen elkarteetan parte-hartzea sustatu eta premiazkotzat jo behar dugu. Guraso katolikoek elkarteak indarberritzea ere nahitaezkoa da, hainbat gizarte eremutan antzematen den asoziazionismoaren ahultzearekin bat gertatu den moteltzea jasan dutelako. *Gurasoek AMPA deituriko aita eta amen elkarteetan eta beste elkarte batzuetan partaidetza ekintzaile eta konprometitua izanez gero*, hobera egingo du beraien uste sendoen arabera hezkuntzaren kalitateak.

### X.5. Gizarte ekimen askearen sustapena hezkuntza-egitasmoetan

**93.** Konstituzioak, 27. artikuluan, zera aitortzen du: “Pertsona fisiko eta juridikoei ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen zaie, konstituzio-printzipioei dagokien begirunearen barruan” (27, 6 artikulua); “Botere publikoek laguntza emango diete legezko betekizunak dituzten ikastetxeei” (27, 9 artikulua). Beraz, administrazioek *askatasuna ziurtatu, babestu eta errespetatu egin behar dute ekimen sozialetik hezkuntza-proposamenak* titulartasun publikoko eskolarekiko berdintasun eta askatasun baldintzetan sustatu ahal izateko. Espainiako Konstituzioak jasotzen duenarekin bat, beharrezkoa izango da hezkuntzaren *finantzaketa egokia* familiei aukera-berdintasuna bermatzeko beraien uste sendoengatik baztertuak izan ez daitezzen. Horregatik, ekimen sozialetik edo aitorturiko beste instantzia batzuetatik ikastetxeak sortzeko askatasuna eta horien finantzaketa egokia *ez da inongo pribilegioa*, hain zuzen gure ordenamendu juridikoak defendatzen duen hezkuntza-askatasunaren adierazpena baizik.

## X.6. Hezkuntza erlijiosoaren presentzia irmoa eskolan

**94.** Benetako hezkuntzak pertsona errealtate osoan sartzea adierazten du. Horrexegatik, pertsonaren alderdi guztiak barne hartu behar ditu. Honi dagokionez, *alderdi transzendente eta erlijiosoak ikaragarri aberasten du hezkuntza-eremua*. Hezkuntza erlijiosoak guztiz berezkoa duen alderdian hezitzen du haur eta gaztea, izan ere gizakia ez da izaki arrazional eta soziala bakarrik; alderdi erlijioso eta transzendentea ere bere-bereak ditu. Hezkuntza erlijiosoak bizitzari eta gure existentziaren zentzuari buruzko galderarik sakonenei erantzuna bilatzen laguntzen du: nondik nator, zein da nire bizitzaren sena, zer itxaron dezaket, zer esan nahi du maitatzeak, zer dela-eta da beharrezkoa barkatzea, sufrimendu eta gaixotasunari zentzurik aurki diezaiokegu ala ez, zer esanahi du heriotzak, nola eraiki gizarte zuzen eta solidarioa. Giza bihotzaren irrika sakonekin bat datozen egia eta guztien onean sustraituriko proposamena da.

**95.** Irakaskuntza erlijiosoak *hazkunde pertsonala izugarri ahalbideratzen du eta erabakigarria da egian eta onean*, elkarrenganako errespetuan, maitasun eta barkamenean, elkartasun eta doakotasunean, zuzentasun eta bakean, erruki eta gupidan, behartsuenen aldeko laguntzan eta ahulen babes eta zaintzan sustraitutako gizarte eta mundua eraikitzeko. Kristau sustrai sakonak dituen gure kultura baloratzen ere laguntzen digu, eta gure izateko modua itxuratu duen eta gure zibilizazioaren oinarrian dagoen legatuaren berri ematen.

**96.** Estatu bera ez-konfesionala izateak ez luke ekarri behar erlijio gertaeraren baztertzea hezkuntzan. Ez-konfesionala den Estatuak, gertaera erlijiosoari kontra egin ordez, *familiek eta herritar guztiek arlo erlijiosoan duten funtsezko eskubidea diskriminaziorik gabe erraztu eta ahalbideratu egin beharko luke*. Hezkuntza-erreferentzat hartu eta Europari begiratuz gero, bertako erakundeek (esate baterako Hezkuntzarako Europar Batzordeak) geletan kultura erlijioso beharrezkoa dela nabarmentzen dute. Horrela, Elkarte Europarreko herrialde gehienetan, Erlijioa hezkuntza-sisteman txertatzen dutela ikus daiteke eta hitzarmenak dituztela hainbat konfesio erlijiosorekin, aukera anitz garatuz. Ezinbestekoa da kultura erlijioso kristaua, eta Erlijio-irakasgaia, familia eta ikasle bakoitzaren aukerekin begirunetsua den lege-esparruan gauzatzeko eskubide bezala baloratzea. Familiek, ikasleek, administrazioek eta gizarteak berak, benetan irekia, anitza eta kultura den eta jakintza, gaitasun, giza balio eta gizarte ardurak integratzen dituen eskolaren barruan gaurkotatzen betea duen zerbait bezala baloratu beharko lituzkete Erlijioaren irakaspenak. Europar esparruak naiz Konstituzioak, Hezkuntzaren Lege Organikoak eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak bermatu eta arautu egiten dute eskubide hau.

**97.** Erlijio-irakasgaia ez da bakarrik eliz hierarkiari -eta ez beste inori- dagokion zerbait bezala ulertu behar; are gehiago, Espainiako Konstituzioan, 27.3 artikuluan jasotzen den gurasoen funtsezko eskubidetzat hartu behar dugu: “Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe”. Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko Lege Organikoaren 18. artikuluan, hauxe jasotzen da: “Zentro publiko guztiek euren jarduerak gauzatzeko dituzte konstituzio-printzipioak kontuan hartuta, ideologia-neutraltasuna bermatuta eta Konstituzioaren 27.3 artikulua aipatu aukera erlijioso eta moralak errespetatuta”. *Dagokion garrantzi eta sakontasuna eman behar diogu Erlijio-irakasgaiari*. Beraz, funtsezko irakasgai hau emateaz arduratuko diren irakasleak aparteko arretaz zaintzeko eta hezitzeko eskatzen diegu ikastetxe guztiei. Eskatzen zaien titulazioaz gainera, biziki maita dezatela irakasgaia eta fede bizitzaren lekukotasuna eman dezatela, beraien irakaspenak finkatzeaz gainera, sinesgarri egingo dituen. Erlijio-irakasgaia ez da ez gertaera erlijiosoari buruzko kultura hutsarekin, ez katekesiarekin nahastatuko eta, are gutxiago, doktrinamenduarekin. Hezkuntza erlijioso katolikoak ezagutzen lorpena ebaluatzen du, ez ikaslearen fedea. Beraz, arlo akademikoan gainerako irakasgaiekin pareka daitekeen irakasgaia da, eta baliozkoa sinesgabeentzat ere.

## X.7. Balorazioa eta esker ona Erlijio-irakasleei

98. Gure esker ona adierazi nahi genieke Erlijio-irakasleei, batik bat titulartasun publikoko eskolan dabilzane, askotan, ohikoez gainera, beste hainbat zailtasun izaten dutelako beraien lana garatzerakoan. Pertsonaren alderdi transzendentearen zainketa, benetan osokoa den hezkuntzaren ataletako bat da. Eskolak, laiko nahiz konfesionalak, titulartasun publikoko nahiz ekimen sozialekoak, jakintza eta balioak, eza-guera eta gaitasunak uztartu egin behar ditu; denak barne hartzeko gauza izan behar du, erlijioen eta beraien kulturen eremuarekin hartu-emanen eta elkarbizitzan; gaitasun espiritualean hezi behar du, osoko hezkuntzarako osagaitzat hartuz. Eta Erlijio-irakaslea irekitasun, integrazio eta transzendentzia honen lekuko aparta da. Eskerrik asko zuon eskaintza eta lekukotasunagatik.

## BUKAERA

99. Hezkuntza-egitekoak gizarte bizitza eratzen duten elementu guztiak konprometitzen dituela ikusi dugu. Familia da haren jatorrizko iturria. Era bateko eta besteko administrazioek, ekimen sozialeko erakundeek eta Elizak elkarlanean aritu behar dute egiteko zoragarri honetan. Idazkian, gizakiari dagokion duintasunarekin bat datorren hezkuntzarako oinarritzotzat jotzen ditugun hainbat elementu eta alderdiren inguruan hausnartu nahi izan dugu, eginkizun honek gaur egun aurkezten dituen *erronketan argi egiteko*. Ez dago eginkizun ederragorik eta, aldi berean, labain eta zorrotzagorik. Hezkuntza hil edo bizikoa da pertsonen zorionerako eta gure gizartearen garapen eta etorkizunerako. Ezin da moden, aldaketa politikoen edo interes ideologikoen mende utzi. Askok da jokoan duguna.

100. *Jesus, maisua* eta gure haur eta gazteen hezkuntzari lotu nahi zatzaizkienen *eredua* jarri nahi izan dugu *hausnarketaren erdian*. Eliza gizaldietan zehar konprometitu da misio honetan. Bertan makina bat kongregazio erlijioso eta ekimen sortu da maila guztietan, hau da, bai parroketako ikastetxe txikiak eta bai unibertsitate ospetsuak ete. Ekimen hauek guregandik hurbil sortu dira eta baita urruneko lurraldeetan ere, non hamaika misiolarik era miresgarrian garatu duen hezkuntza-bokazioa eta hainbat herri anitzen berariazko kulturak defendatu eta bultzatu dituen. *Gure esker ona familiei, hezitzaileei eta* hezkuntza-egitekoan diharduten *eliz erakunde guztiei*. Elizak presentzia nabarmena izan du historian zehar, eta orain ere badu, hezkuntzaren eremuan, bere buruaren onena eman. Elkarriketatik, errespetutik, zerbitzutik eta lankidetzatik, familiei lagundu egin behar die eginkizun honetan eta gizartearen esanetara jarri behar du elkarrekin mundu gizatiarrago eta anaiorragoa eraikitzeko, benetako giza duintasuna sustatuko duen kultura garatzeko, behartsuen, oinazetan daudenen edo bazterketa jasateko arriskua dutenen aldeko zerbitzuan aritzeko. Bere argia eta irakaspena onartzen laguntzeko eskatuko diogu Jainkoari; lagun diezagula bokazio eta misio honetan. Bere bedeinkapena eta Maria Birjinaren ama bitartekotza eskatzen ditugu hezkuntzaren arlo eder honetan, salmogilearen hitzak apaltasunez geure eginez: “Bizirako bidea erakutsiko didazu” (sal 15, 11).

2017.eko ekainaren 4a. Mendekoste Eguna

Bihotzez,

- + Francisco, Iruñako artzapezpiku eta Tuterako gotzaina
- + Mario, Bilboko gotzaina
- + Jose Ignacio, Donostiako gotzaina
- + Juan Carlos, Gasteizko gotzaina
- + Juan Antonio, Iruña eta Tuterako gotzain laguntzailea